

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Pitteka, aurrera

Bi metroko distantzia bermatu ezin den tokietan maskara derrigorrezkoa da

#Sakanapedia aurrera

Herrien ondarearen ezagutza, modu partekatu eta librean plazaratzeko egitasmoa / 7

Altsasuko auzipetuendako 3. gradua eskatu du Zaballako espetxeke zuzendaritzak / 8

Sakanako Mankomunitatearen plan estrategikoa bukatzeko bi lantalde sortu dira / 9

Lakuntzako Lagun Arteak futbol taldea markak apurtzen: bi denboraldi bi iguera / 10-12



Sakanaoptika
optometria - audiometria - hantakologia

*Betiko ordutegira itzuli gara,
neurri guztiak hartuta*

Astelehenetik ostiralera:
9:30-13:30 eta 16:30-20:00
Larunbatean: 9:30-13:30

948 563 124
Intxostia zeharbidea 10 (Altsasu)
www.optikasakana.com

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Nerea Reparaz Beaskoetxea kazetari arbizuarra EITBko Frantziako berriemailea da. Azken bi hilabeteetan Covid-19 birusaren inguruko gaiak baino ez ditu lantzen. Paris hutsik ikusteko eta erretratatzeko aukera izan du. Maiatzaren 11n deskonfinamendu prozesu jarri zen martxan Frantzian. Bertan konfinamendua ez zen hain "zorrotza" izan. **Zein izan da koronabirusaren eragina frantziar estatuan?**

Frantzia bitan banatuta egon dela uste dut; ekialdea eta mendebaldea, bereziki. Toki kaltetuena ipar ekialdea izan da, Alsacia inguru hori. Ospitaleak gainezka egon dira, eta medikalizatutako abiadura handiko trenak ere antolatuta dituzte gaixoak ekialdetik mendebaldera eramateko. Oro har, mendebaldean ospitaleak ez dira presio edo saturazio maila horretara iritsi. Oso asimetrikoa izan da eragina, eta horregatik deseskalatzea ere asimetrikoa izaten ari da. Bi adierazle hartu dituzte kontuan, alde batetik, zirkulazioa eta, bestetik, ospitaleen ahalmena.

Zenbat hildako izan dira?

Orain zifra 28.000 inguru da (astelehenean). Esango nuke Espainiar estatuko zifra gainditu duela dagoeneko. Zifra horretan portzentaje handi bat adinekoei dagokiena da eta zahar etxeetan hil direnena.

Zein da egoera?

Hemen konfinamendua han baino apur bat beranduago hasi zen. Martxoaren 17an hasi zen. Orain arintze prozesuan edo deseskalatze prozesuan gaude. Ikastetxe batzuk ireki dituzte, saltokiak ere, baina koronabirusak izan duen eraginaren arabera gune gorrian edo berdean dago banatuta Frantzia. Hemen Parisen, ni bizi naizen tokia, esaterako, gune gorria da eta pausoak motelago ari dira ematen. Hemen ez dago jatetxeak, tabernak, museoak, zineak eta abar irekitzeko datarik. Toki batzuetan pazientziarekin.

Nola izaten ari da prozesua?

Mapa bat zehaztu zuten gune gorriekin eta berdeekin. Gorrian

"Parisko hirigunera bizitza apur bat itzuli da"

NEREA REPARAZ BEASKOETXEA KAZETARIA

Koronabirusaren eragina Frantzian asimetrikoa izan dela esan du Nerea Reparaz kazetari arbizuarrak. Itxialdia arintzeko prozesuan bi gune desberdindu dituzte

dauden guneetan, Parisko eskualdean eta ipar ekialdean, kasu gehienak eman dira, jendearen zirkulazioagatik eta ospitaleen ahalmena gainditzeagatik. Horren arabera ari dira pausoak ematen. Izango dugun hurrengo berria edo aldaketa ziurrenik ekainaren 2an izango da. Momentuz, itxaron beharko dugu. Baina badirudi gune berdeetan ekainaren 2an tabernak eta jatetxeak zabalduko dituztela. Toki askotan dagoeneko hondartzak eta bestelakoak ireki dituzte. Gune gorrietan, zain gaude. Gehienez 100 kilometrotako distantzia egin dezakegu. Apur bat mugatuta gaude. Egunotan bueltan dagoen gaia da zer gertatuko den udako oporrerkin. Ikusteke dago. Momentuz, gobernua erreserbak Frantzian egitera animatu du jendea. Etxetik gertu geldituko da jendea. Ikusi behar Frantziatik kanpo ateratzeko aukera egongo den.

Nola hartu zituzten neurriak?

Martxoaren 15ean udal hauteskundeetako lehen itzulua egin zen. Oso polemikoa izan zen orduko Italiako eta espainiar estatuko egoerak ezagutzen ge-



Nerea Reparaz kazetari arbizuarra. UTZITAKOA

nituelako. Berezi Hego Euskal Herrian edo Italian familia dagunok ikusten genuen egoera zein zen eta iristen ari zela. Eta hemen, Frantzian, jarraitzen genuen eguneroko bizitza egiten. Orduan, hauteskundeak egin ziren, baina oso arraroak eta polemikoak izan ziren. Abstenzioa ere historikoa izan zen, baldintza oso arraroetan egin ziren. Egia da kostatu zela konfinamendua aplikatzea eta aplikatu zenean ere jende dezente ikusten zen kalean beharbada ez zutelako larritasunaren neurria hartu. Baina bestela nik uste konfinamenduaren eredia ere, beste toki batzuetan baina ari-nagoa izan dela. Esaterako, hasieratik izan dugu kalera ateratzeko aukera. Ordu bateko tartea izan dugu kirola egiteko edo paseatzeko eta haurrak ere hasieratik atera dira. Desberdin bizi izan da. Ziurtagiri bat eraman behar genuen gainean beti. Ziurtagiria Barne Ministerioaren webgunetik deskargatzeko aukera zegoen eta bertan kalera ateratzeko arrazoi batzuk zeuden. Ordu bate kirola egitera edo paseatzera ateratzeko aukera zegoen. Hemengoek beste herrialde batzuetako konfinamendua ikustean, espainiar estatuko ikustean, esaterako, oso zorrotza zela iruditzen zitzaien.

Hemengoa zorrotzegia zela iruditzen zitzaien, beraz.

Nik uste oso harrigarria egiten zitzaizela haurrak etxetik ez ateratzearen kontu hori. Hemen hasieratik asko ikusi dira paseatzen eta plazetan bakoitza bere aldetik. Parkeak itxita daude, baina kalean ibili dira.

Zertaz hitz egiten zuten espainiar estatutik iristen ziren albisteak?

Italiarekin batera Espainiaren egoera gertuen jarraitu dena izan da. Denborarekin ikusten joan gara zifretan, aipatutako hildakoen kopuruan, Frantzia ia maila berdinerara iritsi dela. Astebeteko atzerapenarekin joan gara, baina ikusi dugu arazoak errepikatzen joan direla: osasun materialari dagokionez ere hemen nahiko polemika egon da.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Espainiar estatua edo Italia etorkizunera begiratzea bezalakoa zen. Etorriko ziren arazoei begiratzea bezala zen.

Eta nola sentitu zara egoera hau urrunean bizitzen?

Guztiok bezala Whatsapp-etik hitz egiten eta bideo deiak etengabe egiten. Frantzia lehenengo kasua urtarilaren bukaeran agertu ziren. Tantaka hasi ziren, hasieran hiru kasu izan ziren, eta oso urrun ikusten genuen, edo nik behintzat ez nion neurria hartu. Etxetik iristen ziren albisteak ikusita nabaritzen zen gero eta gertuago zegoela, eta neurri horiek ere guregana iritsiko zirela. Momenturen batean Frantziara ere iritsiko zirela. Frustrazio pixka batekin ere bizi izan nuen, ikusten nuelako hemen bizitzak normal jarraitzen zuela eta han etxean gelditzen zirenen bitartean hemen tabernak lepo zeudela. Sentipen hori izan nuen.

Zein da giroa?

Parisko hirigunera giroa edo bizitza apur bat itzuli da. Trafiko gehiago ikusten da eta jende gehiago ere ikusten da. Baina oraindik ez da betiko giro hori. Taberna eta jatetxe guztiak itxita daude. Saltokiak ireki dira, baina oso neurri zorrotzekin. Metroan ere neurriak muturrekoak dira: puntako orduetan, adibidez, bakarrik laneko ziurtagiria dutenak joan daitezke. Beraz, arintze prozesu horretan gaude, baina oraindik asko falta da Parisek betiko normaltasuna berreskuratzeko. Baina ikusten da jendea gogotsu dagoela. Gainera, egunotan sekulako eguraldia izan dugu, eguzkitsua eta jendea Senako bazterretan eta kanaletako bazterretan biltzen da, betiere distantzia mantentzen. Polizia atzetik dabil maskara erabiltzeko eskatzen. Badirudi gutxika jendea ohitura berriak hartzen ari direla.

Nola izan da Paris hutsik ikustea?

Pasada bat da. Zentzu horretan kazetariok pribilegiatuak izan gara Paris hutsik ikustea ez delako ohiko zerbait. Gehien bat toki turistikoak direnak, Eliseoko zelaiak edo Garaipenaren arkua oso toki turistikoak dira, turistak ia paisaiaren parte dira, eta hutsik ikustea izugarria izan da. Nik aprobetxatu dut pasai horiek argazkitan hartzeko eta oroigarria izateko, ez dakigulako horrela berriro ikusiko dugun. **Nolakoa da berriemaile baten bizitza?**



EiTBko Frantziako berriemailea da Nerea Reparaz. UTZITAKOA



Parisko kaleen ezohiko irudia; kaleak hutsak daude. UTZITAKOA



Merkatu batean erosketak egiten. UTZITAKOA

"HANGO ALBISTEAK IKUSTEA ETORRIKO ZIREN ARAZOEI BEGIRATZEA BEZALA ZEN"

"KONTURATU GARA EGOERA HAU KOLEKTIBOA DELA ETA HORREK HURBILDU GAITU"

Interesgarria, oso interesgarria. Gai anitzak lantzeko aukera ematen du eta herrialde baten lekuak izatea, kasu honetan Euskal Herriko publikoarentzat. Nahiko kaotikoa ere bada. Aktualitateak daramalako gure erritmoa, ez dago ordutegi finkorik eta zerbait gertatzen bada, zerbaiten berri badugu, hortan jarriko garelako. Bestela, Paris, bereziki, oso anitza da. Gai kulturalak, sozialak, politikoak... Denetarik dago. Hemen, mugimendu sozialen, ekitaldi kulturalen, eta abarren berri ematea tokatu zait. Egia esan oso anitza eta polita da.

Pandemiaren aurretik txaleko horiek hartu zuten Frantziako albisteetako protagonismoa. Jarraitu al dute? Egoera hau pasata jarraitzeko asmoa al dute?

Txaleko horien mugimenduak hankaz gora jarri zuten guztia. Bai frantziar gizartea bai gobernuak. Gutxika hasi ziren, baina guztiz markatu zuten aktualitatearen erritmoa. Nik larunbatero manifestazioetan egoteko ohitura hartu nuen. Gizartearen haserrearen adierazleak izan dira, eta ordutik gobernuak erabaki batzuk hartu baditu ere, haserre hori jarraitzen duela uste dut. Momentuz, koronabirusarekin dena bertan behera edo stand by-ean gelditu da, baina itzuliko da. Ez dakit noiz, ez dago datarik manifestazioetara itzultzeko, baina haserre hori jarraitzen du eta azaleratuko da berriro.

Mobilizazioetatik konfinamendura. Nola aldatu zaizu lan egiteko modua egoera honetan?

Askok. Guztiok bezala kazetariok ere egoera honetara egokitu behar izan gara. Nire kasuan saiatu izan naiz konfinamendu garaian etxetik gutxiago mugitzen. Nire etxeko plaza telebista platera bihurtu da. Bizilagunek ere zuzenekoak egiten ikusten ninduten eta pentsatuko zuten "zer ari ote da neska hau plazan bueltak bere argiarekin eta tripodearekin". Hori alde batetik, bestetik, elkarrizketa gehienak Skype bidez egin behar izan ditugu elkarrizketatuak ezin zirelako etxetik atera. Beste errealitate bat izan da. Noski, bi hilabete inguru daramat bakarrik koronabirusaren inguruko gaiak egiten. Ez dakit noiz hasiko garen berriro Covid-19arekin zerikusirik ez duten erreportajeak egiten. Monotematikoa bilakatu da, baina adar desberdinak ditu.

Askok. Eragin soziala, ekonomikoa eta abar.

Eta bizitza nola aldatu zaizu?

Ohiturak dezente aldatu behar izan ditugu. Kazetariok kalera ateratzeko pribilegio txiki hori izan dugu, baina bestela etxean denbora asko pasatu dut. Senideekin eta lagunekin telefonoz askotan hitz egin dut, beharbada normalean baino gehiago, eta egia esan bizi naizen eraikin honetan aurretik ezagutzen ez nituen bizilagunak ezagutzeko aukera izan dut. Etxealdi honek utzi duen gauza positiboetako bat izan da. Patio ireki bat da eta elkar ikusten dugu guztiok. 20:00etan txalotzera ateratzen gara eta inguruan bizi direnak ezagutzeko balio izan du.

Harreman berriak egin dituzue.

Parisekoa eta orokorrean hiri handietakoa, nahiko gizarte indibidualista da. Kasu honetan konturatu gara arazo hau edo egoera hau kolektiboa dela. Denok sentitzen dugu, bizitzen ditugun egoerak berdinak direla eta horrek hurbildu gaitu. Eraikin honetan ekimen ezberdina sortu dira, bata besteari laguntzeko, gehiago ikusi dugu elkar, bizilagun batek niri berak prestatuko errezeta bat atarian utzi zidan eta nik beste zerbaitekin erantzun nion... Bizilagunen artean ez zegoen jarduerak bat sortu da. Nik uste konfinamenduak ekarri duen hau gelditzeko etorri dela. Hala izatea espero dut.

Etorzea aurreikusita al zeneukan?

Arbizura joan gabe dezente daramat. Gabonetan itzuli nintzen eta nire asmoa apirillean bueltatzeko zen. Baina atzeratzen joan da eta badirudi konplikatzen ari dela bai espainiar estatuak bai Frantziakoak 14 eguneko berrogeialdia inposatzen diela herrialdean sartzen den orori. Beraz, pentsa 15 eguneko oporraldia hartzen badut eta zertan bilaka daitekeen. Orduan, zain nago egoerak nola egiten duen aurrea. Baina egia esan familia gutxi ikustera ohituta banago ere, egoera honek haiekin egoteko nahia areagotzen du. Badut Arbizura joateko gogoak, San Donatona igo, familiarekin lasai egon, lagunak ikusi eta abar. Ez dakit noiz izango den. Pentsatu nahi dut ekainaren 23an ez dugula orain arte ezagutu ditugu sanjuanak izango, baina edozein modutan han egotea gustatuko litzaidake.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Haritza sutan

Izan zitekeen Akis Taurismakis-en film baten sekuentzia apokaliptiko bat, izan zitekeen Mornauren *Nosferatu* filmaren hasiera bikain bat zuri-beltzean, edo Metallicaren kontzertu baten unerik gorena, baina ez.

San Pedrozelain gertatu zen, maiatzaren 10ean, bat fasearen bezperan, domeka ekaiztsu batean, baselizako altsasuarren atearen parez-pare, eta bi grabaketak betikotu zuten gertakaria. Batean haritz enberrari, tximinia bihurturik, su gorri bare egonkorra zerion, bestean erauzte eta lurreratzearen une tragiko eta magikoa ageri zen, Ñaka edo Yaka txakurra deitua zela memento historikoa bizitzeko. Nik neronek aitor dut samina gora-behera, irudi zinez hunkigarri eta eder-ederrak zirela, plastizitate handikoak.

Jainkoaren aingerua ere Moisesi agertu omen zitzaion erretzen ez zen sasi baten "panavision"ean, sasi hiztun eta agintari bat, zeinaren aurrean askatzaile hebraikoak esaneko eta zintzo entzun zuen bere egitekoaren agenda. Haritz honen erretzea, ordea, ixila suertatu zen, txondor gor, etengabe eta enborpeko. Nonbait

INTXAURRONDOAREKIN BEZALAXE BESTE BIZIALDI BAT EMATEKO MODUA IZANGO DELA USTE DUT

tximista lur azpira sartu eta patxadaz haritza egosteari ekin zion barren-barrenetik, zain eta erro, inortxo ere konturatu gabe. Eta egun batzuez erraiak eta gordeak ongi egosi eta kixkali ondoren, lur gainera igaro, zirtaka xuxurlaria eragin eta su eta gar lotu zen

enberrari, arbolaren zatirik handiena etzanarazi arte.

Esanguratsua da oso, bestalde, haritz hau, txistularien gerizpea baita erromeriako arratsaldean, eta plaza markatzen duen ale horietako bat delako.

Nolanahi ere den oraino ez da hila eta ikuskizun dago zer gertatuko den harekin, ipurdia eta gerria zut, badu adar bat bizirik. Itxura guztien arabera bere azkenak bizitzen ari da, baina Foru plazako intxaurrondoarekin bezalaxe beste bizialdi bat emateko modua izango dela uste dut. Altsasun sortzaileak ez dira falta, izango da, beraz, zer sortu, harizkari honekin.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ez da AHTarendako beharrezkoak ez diren gastuen garaia, ARDURA garaia da

SAKANAKO TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Koronabirusaren pandemiak ekarritako aste gogorren ostean, eta ziurgabetasunaz betetako etorkizuna aurrean dugula, erakundeei egoeraren neurriko erantzunak eman ditzatela eskatzen diegu, iraganeko akatsak errepikatu ez daitezen. Nazioarte mailako herrialde gehienetan diru funtsa publikoak nolabaiteko logika soziala jarraituz bideratu diren heinean, Estatu Espainolak harrokeriaz hauspotu ditu aireportu, autobia eta beraientzat harribitxia den Abiadura Handiko Trena bezalako milioi askoko proiektuak.

Horregatik guztiarengatik, ez da alferrikako gastuen garaia,

bai ordea instituzioek erantzukizunez jokatzekoa, AHTaren proiektuak bertan behera utziz. Egun, Espainiar Estatua munduan aitzindaria da milioi biztanleko Abiadura Handiko Trenaren kilometroetan. Hori gutxi balitz, Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoan 15.000 milioi euroko aurrekontuarekin dira obra berriak hasteko.

Bitartean koronabirusak eragindako krisiak langileriaren ekonomia prekarioa suntsitzen darrai eta gobernuek aurreikusitako laguntzak lotsagarriak dira AHTari bideratuko diruarekin alderatzen baditugu. Kulturgintzako profesionalei zuzendutako 2,5 milioiak

AHTaren 83 metroren baliokideak dira. Nafarroako Ospitale Gunean eraikiko den Laborategi Bateratuarendako erabiliko den dirua, AHTaren 656 metrok behar duten adina da. Eta Iruñea-Gasteiz konektatuko lukeen trenbidearen kostuarekin Eibarren berriki eraikitakoa bezalako 32 ospitale egin zitezkeen.

Gobernuek arduraz jokatzeko garaia dela deritzogu, eta izatekotan, obra faronikoetarako dirua krisiaren ostean xahutzea. Arrazoi hauengatik datorren astean publikoa egingo den "ORAIN ARDURA" manifestua bultzatu dugu eta Sakanako herritar, talde eta eragileak manifestua euren sinadurekin babes dezaten animatzen ditugu.



DUELA 25 URTE...



Xota Ohorezko Mailara begira

Areto futboleko lehen mailara igotzeko borroka betean zegoen Xota. Maiatzaren 20an joanekoa eta 27an itzuliko partidak zituen Madrilgo Ces Boadilla taldearen kontra. Irabaziz gero ere beste bi kanporaketa jokatu behar litzuzke Xotak maila gorenera iristeko. Plantilla zortzi irurtzundarrrek, hiru iruindarrek eta lasartear eta aragoar banak osatzen zuten. Taldea animatzeko, zaleak 27a noiz iritsiko zen zain zeuden.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Pabli Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Treceit Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Kontsultategia berritzeko eskaera atzera botata

Osasunbideak ez du onartu Iturmendiko Udalak herriko osasun kontsultategia berritzeko aurkeztutako eskaera

ITURMENDI

Iturmendiko Udalak aurten ez du jasoko mediku kontsultategia eraberritzeko lanetarako diru-laguntzarik. Victoriano Gabirondo Lanz jarduneko alkateak azaldu digunez, "1974an-edo eraiki zen etxea eta orduko leihoak ditu. Bizpahiru urte daramatragu eskaera egiten baina ez digute ematen". 41 toki entitatek aurkeztu zituzten eskaerak eta, lehentasunaren arabera, balorazio irizpideek Iturmendikoa 35. postuan utzi dute.

Duela urte batzuk iturmendiarraren artean mediku kontsultategia herri erdira eramateko ideia zabaltu zen. Baina sendagileek egungo kokapena nahiago zutela adierazi zuten. Bestetik, pandemia dela eta Bakaikuko eta Urdiaingo mediku kontsultategiak itxita daude eta bi herri horietatik Iturmendira joan behar dute medikuarengana.

Lanak

Estafeta, Elizalde, Arrano Beltza, Konsistorial eta Zirrinkale kaleetako sareak eta zorua berritzeko lanak ilbeltzaren erdialdean hasi ziren. Euri uren eta ur beltzen sareak banatzen, gainontzeko sareak eta zorua berritzen eta herri-argiteriako kableak lurperatzen eta berokuntza sistemaren



Iturmendiko mediku kontsultategia.

lehen faseko hodiak jartzen ari dira langileak. Gabirondok azaldu digunez, "itxura hartzen hasi da". Baina lanak garagarriaren akaberarako despeditzea espero dute.

Udala ez zen joan den urtean berritu eta 2015ean aukeratutako jarduneari ari da. Gabirondok azaldu digunez, haien asmoa da lanak despedituta batzarra deitzea: "kudeaketa batzordea osatzeko 5 pertsona behar dira". Jendea izena ematera animatu du eta haiek laguntza emateko prest daudela adierazi du.

Ospakizunik gabe

COVID-19 gaitzak sortutako osasun-krisia dela eta "udalak ezin du osasun segurtasuna bermatu eta horregatik ospakizun guztiak bertan behera uzteko erabakia hartu dugu". Hala, maiatzaren 1ean ez zen pagorik jaso, maiatzeko sanmigela ere ez ziren ospatu eta bakaikuarrekin batera ospatzen duten Trinitate eguna ere ez da ospatuko. Garileko festak ere bertan behera gelditu dira. "Behar bada gauza puntualen bat egonen da, baina ez dantzaldirik edo herri afaririk".

Urdiaingo herri sarrerak itxura berria mustu du

Bentalde eta De Felipe kaleko lanak bukatu dira. Errepidea gurutzatzeko bi zebra-bide goratu daude

URDIAIN

Bukatu dira Urdiaingo Bentalde eta De Felipe kaleetako sareak eta zoladura lanak. Bentalde kalea herriko sarreran dago, NA-2410 errepideari paraleloa den kalea da, eta, horregatik, lanak egiten ziren bitartean errepideko abiadura mugatu behar izan zuten. Aipatu bi kaleetako lanak egiteaz gain, herriko sarrera txukundu du Urdiaingo Udalak. Benta aurrealdea eta bi autobus geltokiak, Iruñea eta Gasteiz norabideetakoak, txukundu dira eta bertan espaloiak jarri dira, eta baita botikako ingurune guztian eta herriko sarreran ere. Horrekin batera, errepidea gurutzatzeko bi zebra-bide goratu jarri dira, eta margo seinaleztapenak egin dituzte, besteak beste. Horrela, Urdiaingo sarrerak itxura txukuna eta berria du eta bizilagunak pozik daude; zein txukun geratu den nabarmentzen dute. Bestalde, Bentalde kalean baterian apartatuko da orain, eta auto gehiagorendako tokia dago.

Lanak aste honetan bukatu dira. Azken xehetasunak falta dira: azken seinaleztapenak margotzea, seinaleak jartzea, atez ateko zabor bilketarako zintzilikarioak jartzea eta beste.

Hondakin bilketa zerbitzua onbideratzen

Garagarriaren 1ean atez atekoa beti bezala egiten da, 8an garbigune mugikorra eta Emauskoak

SAKANA

COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuari ere eragin zion eta behar bezalako zerbitzua bermatzeko hainbat aldaketa egin behar izan zituen. Alarma egoera arintzen ari den neurrian, Mankomunitateko hondakin bilketak bere onera bueltatzeko erabaki du. Garagarriaren 1ean atez ateko bilketa beti bezala egiten da sistema hori duten zazpi herrietan.

Garagarriaren 8an, berriz, herriz herri ibiltzen den garbigune mugikorraren zerbitzua bueltatuko da. Emausko Trapuketariak ere egun horretan hasiko dira etxeko etxeko bilketa egiten. Emausko Trapuketarien zerbitzua nahi dutenek dagoneko mankomunitatean eskatu dezakete hitzordua. Horretarako, 948 46 48 67 telefonora hots egin edo web orrian galdetegi bete behar da (<https://labur.eus/HxDc2>). Azkenik, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzutik jakinarazi dutenez, bakarren batek tamaina handiko hondakinak baldin baditu haiek Arbizuko hondakindegira eraman ditzake, astegunetan, 09:00etatik 14:00etara. Auzo-konpostagailuek itxita segituko dute, momentuz.

Centro Integrado Politécnico

FP SAKANA LH

Ikastetxe Integratu Politeknikoa

Izena emateko epea maiatzaren 25etik ekainaren 5era:

Goi Mailan

- Mekatronika Industrial
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa (DUALa)

Ertain Mailan

- Mantenu Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Araubide Bereziko Kirol Ikasketak
- Mendekotasun Egoeran Dauden Pentsonei Laguntzea (D ereduan)
- Oinarritzko Lanbide Heziketan
- Merkatal Zerbitzuak

Bisitatu gure web orria

<https://fpsakanalh.educacion.navarra.es/web/>

Telefonoa: 948-564-815

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza eta Zerbitzu-Ikaskuntza Metodologian lan egiten dugu.

Sakanako lan-eskariari egokitutako formakuntza

IKASTETXE BIKAINA
CENTRO EXCELENTE

EUROPAKO GIZARTE FUNTZA
FONDO SOCIAL EUROPEO

SKOLAE

BERPOIN BIDEARI
CREANDO EN SOLIDAD



Galder Gonzalez Larrañaga wikilaria. UTZITAKOA

"Ni jartzen naiz eta egingen dut. Zientzia ez da horrela"

GALDER GONZALEZ LARRAÑAGA SARITUA ETA WIKILARIA

CAF-Elhuyar sariketako dibulgazio-artikulu orokorren mailako saria jaso du. Gainera, Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko kide da. Sariaz eta elkartearen martxaz aritu gara

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

CAF-Elhuyar sariketako epaileek Galder Gonzalez Larrañagaren *Io eta argiaren abiadura* artikulua saritzea erabaki dute. Esan zuten, "ikuspegi historikoa aukeratu du zientziak aurrera nola egiten duen azaltzeko, eta lan irakurteraz, erakargarria eta bitxia osatu du, irakurlearen arreta harrapatzen duena".

Zer da zientzia-dibulgazio artikulu bat?

Zientzia gai bat, edo hainbat gai, publiko orokorrari azaltzea; gaian

aditua ez den norbaitek ulertze-ko moduan. Beti ez da posible, kontzeptu batzuk ulertu beharra dagoelako. Askotan kontakizun batekin, edo analogia batzuekin edo bitxikeriaren batekin lortzen da.

"AGIAN NI JARTZEN NAIZ ETA HURRENGO BELAUNALDIAN BESTE ZERBAIT EGINEN DUTE HORREKIN"

Zein ezaugarri izan behar ditu?

Irakurleak zientziarekiko interesa duela pentsatu behar da, baina gaian aditua ez dela, ez duela hori ikasi. Askotan nahasten da zientziaren historia, edo bitxikeriekin... Egon daiteke jendea gai batzuetan oso aditua dena, baina bitxikeria horien bitartez ikusten duena istorio sakonago bat dagoela, edo orain arte ikusi gabeko loturak...

Zein gai aukeratu zenuen?

Zientziaren eta gizartearen arteko lotura are zabalagoa. Hori

zen aurtengo gaia. Ni aspaldi bueltak ematen ari nintzaion istorio bat kontatu nuen. Hiruzpalau tokitan zerbait irakurtzen duzu eta esaten duzu: aurrekoan irakurri nuenarekin lotuta dago. Lotura horiek egiten joan nintzen. Denbora nahiko behar izan nuen. Ez da bakarrik loturak egin eta esatea: artikulua bat egin daiteke. Jupiterren Io satelitearen eklipsean tauletatik abiatuta argiak abiadura daukala aurkitu zuten. Hori da gaia.

Bestela esanda?

Jupiterrek hainbat satelite ditu eta horietako lau erraz ikusten dira. Ikusten den txikiena Io da. Galileok satelite horiek aurkitu zituen ikusi zuen ia egunero buelta bat ematen zuela eta oso erraza zela astronomia erloju gisa erabiltzea: "eklipsea zein orduan dagoen baldin badakit, zein ordu den dakit". Zein ordu den jakitea ez da tontakeria bat. Batez ere itsasontzi batean bazeude, zein ordu den baldin badakizu, jakin dezakezu zein longitudetan zauden. Garai hartan jendea itsasoan zegoenean ez zekien non zegoen eta kosta jotzen zuten. Espainiako inperioa ahaltsuena zen eta diru nahiko eskaini zuen itsasoan longitudea jakiteko metodoa lortzen zuenarendako. Galileo 30 urtez saiatzen aritu zen, sistema batekin taula batzuk egiten itsasontzi batean ikusi ahal izateko. Guztiz absurdoa, ez zuen inolako garapen posiblerik. Baina Ioren kokapenaren eta abarren inguruko taula batzuk egin zituen. Denbora asko aritu zen hori ikertzen, ea sari hura lortzen zuen. Ez zuen lortu. Baina bai metodo bat longitudea zehazteko. Gero hainbat astronomo horrekin mapak egiten aritu ziren. Astronomo daniar bat konturatu zen Galileoren kalkulu horiek ez zirela batere zehatzak: Lurra Jupiterretik urrun bazegoen Ioren eklipseak Galileok kalkulatuakoa baino beranduago ziren, eta gertu bazegoen goizago ziren. Horren azalpen posible bakarra da argiak denbora behar duela Iotik guregana iristeko. Ez dago beste azalpen posiblerik. Galileo

"EZAGUTZA GUZTION ESKURA JARTZEKO GOGOIA DAUKANA IZAN DAITEKE WIKILARIA"

baino ia mende bat beranduago konturatu zen horretaz. Kontakizun hori egin dut: ikerketa batetik beste bat ateratzen da. Agian bi belaunaldi pasa arte ez dugu kalkulatu horrek daukan garrantzia. Galileorena erabili zen, baina beste gauza baterako zen. Egun hauetan eztabaida handia dago koronabirusaren txertoa eta abar direla eta. Badirudi dena aurkitu daitekeela: hasten gara fuerte pentsatzen eta bospasei hilabetetan posible dela. Eta batzuetan ez da posible gauzak horrela egitea. Batzuetan duela 20-30 urte egindako ikerketa batetik abiatuta posible da. Hori ere hausnarketarako: zientzia ez da ni jartzen naiz eta egingen dut. Agian da ni jartzen naiz eta hurrengo belaunaldian beste zerbait egingen dute horrekin.

Analogiak, bitxikeriak... halakoak ere beharko zenituen zuk ere.

Zer asmatu zuen jartzen duzu, zergatik egiten zuen, zer tresna erabili zituen, bitxikeriaren bat, esaterako, nola Frantziako erregeak esan zuen lur gehiago kendu ziotela astronomoek gerrek baino. Longitudea begiratzen hasi zirelako eta konturatu zirelako Frantzia uste baino txikiagoa zela.

Aurretik zientzia dibulgazioan aritu al zara?

Zerbait bai, baina lehiaketa batera aurkeztuta, ez.

EUSKARAZKO WIKIPEDIA

Wikipedia sustatzen duen Euskal Wikilarien kultur elkartekoa zara. Hor ere badago dibulgazio lana.

Publiko osoari ezagutza helaraztea da entziklopedia bat. Dibulgazioa dago. Ez da genero bera, zientzia dibulgazioan normalean bitxikeriak eta kontatzen baitira. Entziklopedia batean kontakizun linealagoa da. Zaletasun bezala, Wikipedian artikulua egiten eta haren inguruko proiektuetan ibiltzen naiz. Elkarre bat daukagu. Zaletasuna izateaz aparte, azken urteetan horretan lanean nabil, hezkuntza programak egiten.

Zein helburu ditu elkarteak?

Wikipedia eta inguruko proiektuak bulkatzea. Gure kasuan euskarazkoak.

Zein lan egiten du elkarteak?

Entziklopedia saltzailak gara, termino klasikoan. Makina bat jenderekin saiatu. Edukiak, datuak... dituztenekin saiatu haiek lortzen, ikastaroak antolatu, kontzientzia zabaltzea, ezaguta-



Ikaslea Txikipedia editatzen. UTZITAKOA

raztea... Nire ogibidea dena, unibertsitateetan adibidez: irakasleekin egoten gara, zer egiten dugun azaltzen diegu eta saiatzen gara ikasleek klaseko lan bezala izan dezatela Wikipediako artikululu bat idaztea. Momentu honetan gure proiekturik handiena hori da. Horretarako dirulaguntza daukagu. Hiru urte pasa daramatzagu horretan. Ikasleek hiru milioi eta erdi hitz baino gehiago idatzi dituzte. Elhuyar fundazioak ere hizkuntzalaritzan eta hiztegi gintzan eskarmentu handia dauka. Beraiekin tresnak garatu ditugu beraien hiztegia eta gure entziklopedia batzeko edo euren artean hobeki lotzeko. Dagokienekin terminologiako gaiak landu, unibertsitateetan eta abar. Denetarik egiten dugu. Gure helburua da Wikipedia dena ahalik eta hobekien egotea euskaraz. Euskarazko Wikipediako 100.000 eta gutxi artikulutik gora zerbitzatzen dira egunero. Egunean 300.000 bisita pasa dira. Ikasle guztiak etxean egon diren egun hauetan, adibidez, ikusi dugu bisitek gorakada handia izan dutela. Ikusi da sarean baliabideak egotea zein garrantzitsua den. Azkenean, ikasleek behar dute ikasteko. Eta norbaitek idatzi behar du. Gu boluntarioak gara eta esku gehiago behar ditugu. Elkartea horretarako da. **Wikipediak aparte, zer gehiago?** Jendeak, normalki, Wikipedia ezagutzen du, entziklopedia delako. Baina artikuluetan irudiak

edo bideoak daude. Horiak libreak izan behar dira. Irudigintzan irudiak igoko dituen jendea behar dugu. Wikiteka, gure liburutegi librean jartzeko. Orain IXA taldearekin unibertsitatean eta Elhuyarrek euskarazko hitzen deklinabidearen inguruko programa batzuk egiten, makinek etorkizunean euskara hobeto ulertzeko. Itzulpengintzako kontu batzuk lotzen itzultzaileekin eta horrelako gauzak egiten ditugu. Egia esan, ez gara aspertzen. **Auzolana eta jakintza askea duen entziklopedian edozeinek parte har dezake.**

Hori da. Badaukagu jendea fisikan oso ona dena fisikaz idazten, baina, esaterako, nik orain ez dakit Osasunan zein jokalaria dauden. Wikidepia, berez, libre da eta elkarteak ezin du ezer erabaki Wikipediaren inguruan. Nahi duena sar daiteke, editatu dezake. Irakurle batek nahi badu, begira dezake bere herriko artikulua nola dagoen. Zerbaitekin ados ez bazaude, edo hobetu bada dezakezu, goian Aldatu jartzen duen botoia dauka. Sakatu eta aldatzen duzu. Aldaketak onerako direla ziurtatzeko filtro batzuk daude. Baina orokorrean horrela funtzionatzen du: bakoitzak gure ezagutza gehitzen goaz. **Entziklopediaren sorreretan bila-kaera dago?**

Orain dela gutxi egin ditugu 358.000 artikululu. Euskaraz idatzitako obrarik handiena da. Denetarik du. Baina badaude

gauza arlo batzuk hutsik. Artikuluak sortzea sortzeagatik erraza da, baina gero mantentzea ez da hain erraza. Gero badaude gailu batzuk gai garrantzitsuenen sakonera neurtzen dutenak. Hor, hizkuntza guztien artean, lehenengo 40etan gaude. Artikulu kopuruaren arabera uste dut 31. gaila orain. Datuen berrerrabilerarako WikiData proiektuan euskarazko Wikipedia 11. da datu horien erabileran. Agian jende askok ez daki baina WikiBigDatan hitz bat dago eta euskara da esanahi gehien dituen hizkuntza. Galesek esaten digute beraiek euskara adibide gisa dutela. Eta guk beti kataluniarren egoerari erreparatzen diogu. Kristoren lana egiten dute. Gure hizkuntzaren tamainarekin alderatuta, oso-oso ondo gaude. Turkiaren aurretik gaude, 80 milioi hitz dituen hizkuntza nazional bat da.

Sakanari buruzko artikululuak badaude Wikipedian?

Herri guztiak sartuta daude, inguruko mendiak, errekek... Gauza horiek baditugu. Hortik aurrera gutxi daukagu: herrietako pertsonaiak, kultura, ohiturak, basoak, dermioak, kontakizunak, historiako pertsonaiak, herriko pertsonaiak... Herrietako historian makal gabiltza. Herri bakoitzaren euskararen inguruan idatzeko ere asko dago. Eta Sakana horretan oso-oso aberatsa da. Badaukagu bide bat

egiteko, ahoskerak eta horrelakoak. Hori pixka bat zailagoa da. Baina horrelakoak ere behar ditugu. Norbera bere herrikoan sar daiteke, begiratu zer dagoen. **SGAren eskutik ikastetxeetan aritu zarete. Zer moduz?**

Plazera, egia esan. Uharte Arakilgo eta Urdiaingo eskoletan eta Iñigo Aritza ikastolan egon ginen. Badirudi, munduan Wikipedia editatzen gazteenak izan direla urdindarrak. Uharteri eta Urdiaini buruzko informazioa hobetu dugu Txikipe-dian, umeendako entziklopedian, gure beste proiektu bat. Uhartan herrian zein zerbitzu dauden landu dute. Bakoitzera joan ziren galdetzerak: ordutegia, eskaintza... eta denda eta zerbitzu bakoitzari argazki bat atera zioten. Eta hori igo. Kristorena. Unibertsitatean egiten dugunean ez dute hainbeste ikertzen. Urdiaingo kultura eta jaiei buruz batez ere, zer abesti kantatzen den bakoitzean... Urdiaindarrekin toponimiaren inguruan ere egin dute. Kezka dago galtzen ari den zerbaite dela. Pena ezin bukatzea. Zeren azkeneko partearen txangoa egitea eta argazkiak egitea. Baina konfinamendua bukatu arte ezinen da hori egin. Baina oso polita. Bakoitzak hiru toponimoren zergatia galdetu zuen etxean. Ederra, egia esan. Eta Urdiain, Altsasu eta Olatzagutiko inauterietako pertsonaien inguruko informazioa hobetu dugu.

Zergatik izan wikilaria?

Ez da derrigorrezkoa. Ezagutza guztion eskura jartzeko gogo baldin badauka eta, horretaz aparte, euskaraz egotea nahi baldin badu, euskarazko wikilari izan daiteke. Gurean badauka txoko bat. **+www.guaixe.eus**

#Sakanapediak segida izanen du

#Sakanapediak hezkuntzan eta herritarren artean izanen du segida hurrengo kurtsoan. Proba egin duten ikastetxeek esperientziaren berri emanen dute asteazkenean, 17:00etan. Internet bidezko hitzaldia izanen da <https://meet.jit.si/sakanapedia> helbidean edo Sakanako Garapen Agentziaren Youtube kanalean zuzenean ikusteko aukera izanen dena.

Sakanako Plan Estrategikoaren #SakanaDigitala lan ildoan hezkuntzan garatzeko Euskal Wikilarien Kultur Elkartearekin elkarlanean garatu zen proiektu pilotu hori: #Sakanapedia, Sakanako herrien ondarearen inguruko ezagutza, modu partekatu eta libre batean, sortu eta plazaratzeko egitasmoa.

Asteazkeneko hitzaldiaren ondoren ekimenean interesa duten hezkuntza eta kultur eragileek galdetegi bat bete beharko dute (<https://labur.eus/S4sn9>). Sustatzailiek Wikipedia erabiliz datorren ikasturtean zehar proiektu zehatz bat gauzatzeko aholkularitza, bide-laguntza eta formakuntza eskainiko diete. Ekimenak Euskarabidearen babesa du.

Matrikula epea zabalik
Maiatzaren 25etik ekainaren 5era arte

kattuka.com
 haur eskola

info@kattuka.com

Kartzelak 3. gradua eskatu du auzipetuendako

Aurreko astean egin zuen eskaria eta Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralaren erantzunaren zain daude Altsasu Gurasoak. Bestalde, bisitak egiteko kartzelaren baimena jaso dute baina alarma egoeran legez ezin dira beste probintzia batera joan

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Arabako Zaballa espetxean daude preso Altsasuko Auziagatik epaitutako gazte altsasuarrak. Adur, Jokin, Oihan (1286 egun preso), Jonan eta Julen (752 egun preso) presondegian daude eta Iñaki eta Aratz (752 egun preso) 3. graduan, hau da, lo egitera kartzelara joan beharra dute baina eguna espetxetik kanpo ematen dute. COVID-19 birusak sortutako alarma egoerak goitik behera aldatu zuen gazte hauen egunerokoa: espetxerako bisitak eta aurrez aurreko bisitak bertan behera geratu ziren martxoaren 13an, eta baita ere asteburuan ateratzeko Adurrek, Jokinek eta Oihaneke jasotako baimenak. Jonanek eta Julenek baimen berezi horiek ere eskatu zituzten, baina oraindik tramitatze bidean daude. Bestalde, Iñaki eta Aratz 3. gradua etxean betetzen ari dira, eskumutur telematikoa soinean dutela.

Altsasu Gurasoak taldeko Antton Ramirez de Aldak eman du egoera honen aurrean eman daitekeen albisterik onenetakoa: Zaballako espetxeko zuzendaritzak Altsasuko Auziagatik epaitutako gazte guztiak 3. gradura pasatzeko eskaera egin dio Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralari. "Zaballako zuzendaritzak



Etxerat, Salhaketa, Altsasu Gurasoak eta Sare Iruñeko kartzelan presoek eskubideen alde.

joan zen astean egin zuen eskaera, eta uste dugu hilabete bat edo 40 egunetan jasoko dutela Madrilgo erantzuna. Horiek izaten omen dira epeak. Ea behingoz berri onen bat iristen den egoera nahasi honetan; orain garrantzitsuena da jakitea ea Madrilgure gazteei 3. gradua onartzeko prest dagoen ala ez" adierazi du Ramirez de Aldak.

Bestalde, Adurrek, Jokinek eta Oihaneke, asteburua etxean pasatzeko baimen berezia jasoa zuten. Kontua da, espetxetik ateraz gero itzultzerakoan 15

eguneko isolamendua egin behar luke, bakartuta egon behar luke, eta egoera aldatu arte ez dute eskatuko.

Ramirez de Aldakesan digunez, "egoera guztiz aldrebesa da. Konfinamendua arintzeko faseak ezarri dituzte espetxean, eta kartzelako baimena jaso dugu gure semeak bisitatu ahal izateko. Baina kontua da alarma egoera dela eta ezin garela probintzia batetik bestera pasa". Saretik azaldu diguten Etxarriko presoak ere bisitarik gabe segituko dutela arrazoi beragatik.

Patxi Ruizen aldeko mobilizazioek segitzen dute

Etxarrin eta Altsasun gose greban daude eta egunero, 20:00etan, kontzentrazioa egiten da

SAKANA

Murtzia-II kartzelan preso dagoen Patxi Ruizek gose eta egarri greban 11 egun egin zituen atzo. Beste preso batzuekin batera pandemiagatik neurriak eskatuz protesta egin ondoren jasotako mehatxuak salatzeke ekin zion protestari. Maiatzaren 5etik presoari elkartasuna azaltzeko protestaldiak izan dira. Etxarri Aranatzeko elkartasuna adierazteko hiru pertsona gose greban daude astearteaz geroztik. Gainera, Etxarri Aranatzko Gazte Asanblada 48 orduko txandakako baraualdia egiten hasi dira asteburuan, txandako bi kide izanen dira. Horretaz aparte, egunero, 20:00etan, plazan informazio batzarra egin eta ondoren manifestazioa egiten dute.

Altsasun ere asteartean hasi zuten 48 orduko txandakako gose greba. Aurreneko txandan lau pertsona izan ziren eta atzo bostek hartu zieten lekukoa. Egunero, 20:00etan, manifestazioak egiten ari dira. Herenegun, gainera, azokan Ruizen egoeraren berri emanez informazioa zabaldu zuten eta auto karabana izan egin zen. Bestetik, Sakanan barrena hainbat kartel eta pankarta jarri dira Ruizen egoera salatzeke, baita pintaketak egin ere.

Pentsio duinen aldeko kontzentrazioak bueltan

Bi hilabeteko etenaren ondoren, Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinadorak asteleheneroko kontzentrazioei helduko die heldu den astelehenean; 11:00etan, Altsasuko udaletxe parean. Koordinadorak bilkura bidez nabarmendu nahi du "pertsonek eskubideak adinarekin ez direla iraungitzen." Horregatik, gaurko eta etorkizuneko pentsio duinak aldarrikatu dituzte. Hala izateko 1.080 euroko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea aldarrikatu dute. Bestetik, pentsioak Barne Produktu Gordinaren pare eguneratzea aldarrikatu dute. Baita pentsio sistema publiko eta propioa ere.

Arbizuko Gazte Asanbladaren COVID garaiko aldizkaria

Arbizuko Gazte Asanbladak (AGA) "koronabirusak sortu duen salbuespen egoera dela eta aldizkaria argitaratzea beharrezkoa" ikusi zuen eta hilaren 7an banatu zuen herrian (<https://labur.eus/nzokM>). AGAko kideek argitalpenen aitortu dutenez, "kezkaz bizi dute COVID-19ak sortutako egoera". Aldizkarian jakinarazi dutenez, polizia indarrek 20 arbizuar baino gehiago identifikatu eta bost salaketa jarri dituztela jakinarazi dute. Polizia indarren presentzia "itogarria" salatu dute. Lau elkarrizketa daude: ikasle bat eta irakasle bat eta Alerta Gorria eta Nafarroa 1512 musika taldeak. Denborapasekin despeditzen da.

Autoen seguruak

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena PREZIO ONENEAN

PORTUKO

okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdaian: 948 563 763

CONSTRUCCIONES ALZATE s.l.

ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

Mank-en bi lantalde berri sortu dituzte

Ibarreko erakundearen plan estrategikoa despeditzeko gutxi falta da eta sei lan esparru identifikatu dituzte. Proiektu zehatzak aurrera eramateko sortu dira etxebizitzaren arazoari aurre egiteko lantaldea eta telekomunikazioena

SAKANA

Sakana guztion artean. Izen hori hartuta, ibarreko erakundea 2020-2025 Sakanako Mankomunitateko Plan Estrategikoa lantzen hasi zen 2018ko akaberan, "sakandarren ongizatea helburu, Sakanako etorkizunaz eta beharrez hitz egiteko erronka jarri zuen martxan", gogorarazi digu Mank-eko kudeatzaile Itziar Iribarren Rekartek. Azaldu digunez, proiektua egiterakoan kontuan izan dute "eskualdearen identitatearen eraikuntza eta ikuspegi indartzea, elkartasuna eta elkarlanerako bidea sendotzea eta interes taldeen parte hartzea eta inplikazioa indartzea". Iribarrenek esan digunez, "horretarako, bikaintasunaren ikuspegi lan egiteko moduan txertatu da. Sakanako Mankomunitateko Plan Estrategikoak, aipatutako guztian sakondu eta jauzi kualitatiboa eman nahi du".

2020-2025 aldirako plan estrategikoa egiteko Mank-eko langileekin, udal ordezkariarekin, eragileekin eta herritarrekin parte hartze saioak egin dituzte, EMUN aholkularitzak dinamizatuta. Iribarrenek azaldu digunez, saio horietan "ibarreko izaera berritzailea, eraikitzailea eta parte hartzailea geratu da agerian". Kudeatzaileak gaineratu duenez, "guztionez etxea den Sakanako Mankomunitatearen historia mapa osatu ondoren, ibarreko eta Mankomunitateko diagnostikoak gauzatu dira eta aukera, mehatxu, indargune eta ahulguneak identifikatu dira. Helburu komun batzuk adostu dira eta horiek lortzeko, gobernantza irekia eta elkarlana oinarritzat hartu dira".

Horiek kontuan izanik Mank-en misio, bisio, eta balioak zehaztu dituzte, sei ildo estrategikoen bidezgaratuak. Lehenbiziko lauek eskualde mailako esku-hartzeari begirakoak dira: Sakanan bizi, ikasi eta lan egin; diskriminazio



Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitza. ARTXIBOA

SEI ILDO ESTRATEGIKO ZEHATZU DIRA, 4 IBARRERAKO ETA 2 MANK-I BEGIRA

sozialik gabeko Sakana; bere hizkuntza, kultura eta identitatea zaintzen eta garatzen dituen Sakana eta ingurumena eta ingurunea zaindu eta ustiaketa iraunkorra egiten duen Sakana. Eta azkeneko biak Mank-en kudeaketa eta gobernantza ereduari dagozkio: gizarte erantzukizuna eta bikaintasuna eta Sakandarren Mankomunitatea. "Ildo horiek gaien trataera integralarekin eta Mank-eko zerbitzuen arteko elkarlanarekin landuko dira. Zeharlerrotasuna izanen da gaiak garatzeko erabiliko den prozesua".

Azken pausoak

Mank-en plan estrategikoa despeditzeko gutxi falta da. Proiektu zehatz batzuk identifikatu dituzte eta horietako bitan lantaldeak sortu dituzte: telekomunikazioak eta etxebizitzaren

arazoa. Aurreneko lantaldearen arduraduna Arruazuko alkate Gorka Ovejero Ganboa izanen da eta atzenekoarena Arakilgo alkate Oihana Olaberria Jaka. Iribarrenek azaldu digunez, "bi arlo horietan, egon daitezkeen esperientziak ezagutu ondoren, Sakanako errealtatera egokitutako irtenbideak proposatu eta probatzen hasia litzateke lantalde horien helburua. Esperientzio horretatik irakaspenak atera eta Sakanako udal eta eragileekin ezagutza hori partekatuz esperientziak erreplikatzeko da asmoa".

Ibarreko erakundeko kudeatzaileak azpimarratu duenez, "Sakanako Mankomunitatea, sakandar guztion mankomunitatea izanik, eskualdeko beharrei erantzuteko tresna da, hausnarketa eta elkarlan esparrua. Horretarako lan egiteko modu ireki eta parte hartzailea da oinarria". Eta adibide gisa jarri ditu, batetik, aipatu bi lantaldeetan udalak eta hainbat eragile parte hartzen ari direla. Edo martxan den turismo eta komertzio mahaia, Mank-ek eta Sakanako Garapen Agentziak koordinatzen dutena.

Komunitatea egiteko, boluntario bila ari dira

Bakarrik dauden atzerriko adingabeei laguntzeko, aisialdiko jardueretarako, mentore izateko

SAKANA

Sakanan bakarrik dauden atzerriko adingabeak joan den urte-tik daude. Iturmendin egoitza batean eta Altsasun etxe batean. Nafarroako Gobernuaren ardurapean daude. Baina Sei elkar-tearen bidez boluntarioak haiekin lanean hasi ziren udazkenean, adingabeei harrera egin eta laguntza ematen aritzen dira. Eta Sakanan egiten diren ekimenetan ere parte hartu dute. Sei elkar-teko kide Maite Zigandak azaldu zigunez, "garrantzitsua da beraiei harrera ona egitea, parte sentitzeko eta, horrela, euren bizitza aukera berberekin bizi dezaten".

Ikasturtea despedituta, udarako boluntario bila dabilta Sei elkartean, adingabe horiei gizarte eta hezkuntza arlotan akonpainamendua egiteko eta aisialdiko jardueretan aritzeko. Iturmendin maiatzetan eta garagarrian, ostegunetan, 17:00etatik 20:00etara eta udan astearteetan 10:00etatik 14:00etara eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara. Altsasun, berriz, udako ostiraletan 11:00etatik 14:00etara izanen da. Bakarren batek gazteren baten mentore edo aholkulari izan nahi



Futbol topaketa solidarioa Iturmendin.

badu, horretarako ere badu aukera. Aholkulari izan nahi dutenek egokia zaien orduan egiteko aukera izanen lukete.

Harremanetarako

Interesa dutenek 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake edo gestorasocial@asociacionsei.org e-postara idatzi. Informazio gehiago www.asociacionsei.org web orrian opatu daiteke. Ekarpenak ere jasotzen dituzte.

**2018, 2019 eta 2020 urteetan jaiotako haurrentzat
7, 6 eta 4 ordutako egonaldiak
Jantoki zerbitzuarekin
Instalakuntza berriak
Ordaintzeko tarifa Errenta aitortpenaren arabera**

Aurrematrícula:
Maiatzaren 25etik ekainaren 5era arte

Telematikoki izango da eskaera betetzea Udaletxeko web gunearen bidez eta ezinezkoa izatekotan aurrez-aurreko txanda hartzeko edo dudak argitzeko: txiribulohaureskola@altsasu.net

Jarrai gaitzazu

Lagun Artea, markak apurtzen

FUTBOLA Lagun Artea futbol taldeak bi urtez jarraian mailaz igotzea lortu du: aurreko urtean Preferente mailara igo zen eta aurten maila Autonomikora. Historian atzera egin dugu, Miguel Angel Aretarekin talde lakuntzarraren ibilbidea ezagutzeko

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

COVID 19 birusak 2019/2020 futbol denboraldia bertan behera utzi du. Nafarroako Futbol Federazioak aurten ez dela jaitzieserarik egongo erabaki du. Horrela, Preferente mailan azken postuan dagoen Etxarri Aranatz taldeak Preferente mailan jarraituko du. Eta, bestetik, federazioak erabaki du Preferente mailako 1 eta 2 multzoetako sailkapeneko lehen bi postuetan zeuden taldeak zuzenean igoko direla maila Autonomikora. Tartean dago Lagun Artea, 1. multzoan bigarrena sailkatuta zegoena, Beti Casadano liderrengandik puntu batera.

Bi urtetan bi igoera lortu ditu Lagun Arteak, nabarmentzekoa. 2017/2018 denboraldian Preferente mailatik Erregional mailara jaitsi zen talde zuria, baina hurrengo denboraldian, 2018/2019-an, atzera ere Preferente mailara igotzea lortu zuen. Eta despeditu berri den denboraldi honean maila Autonomikora igo da. Horretaz gain, gazte mailako Lagun Artea taldea jubilenen 1. mailara igo da. Lorpen hauek talde lakuntzarraren historia errebasatzeko aitzakia polita dira, eta bizitza guztia klubari lotuta egon den Miguel Angel Areta Aretak gidatu digu lanbide horretan.

Lagun Artearen lehen fasea, 1948 urtean

C. D. Lagun Artea 1966ko abuztuaren 12an sortu zen ofizialki, bere estatutuekin, araututa. "Baina hau Lagun Artea taldearen 2. fasea izan zen, aurretik Lagun Artea taldeak Nafarroako Federazioak araututako partidetan jokatu zuelako. Ni 1941koa naiz eta ez dut gogoan, orduan txikia nintzelako, baina 1948 eta 1949 urteko Nafarroako Futbol



1948-1949ko Lagun Artea taldea. LAGUN ARTEA



1967ko Lagun Artea, Txantrean. Goian, ezkerretik hirugarrena, M.A. Areta. LAGUN ARTEA

Federazioko aktak ditugu, orduko Lagun Arteak jokaturako partidaren berri ematen dutenak. Angelena etxeko Nievesek eman zizkidan aktak, guk gorde genitzan, bere senarra zenak aktak jaso baitzituen. Eta akta horietan Lagun Arteak Altsasu, Lutzana,

Anaitasuna eta Alegria taldeen kontra jokaturako partidak jasotzen dira. Baina orduan taldea ez zegoen araututa, ez zituen estatutuak, guk behintzat ez ditugu dokumentu horiek lortu. Horregatik, eta ofizialki, 1966 urtean sortu zen Lagun Artea,

nahiz eta aurretik ere taldeak jokatu" azaldu digu 1966 urtetik Lagun Artea taldeko juntan arituen Miguel Angel Aretak. Akta horietan jasotzen denez, Antonio Soto, Felipe Flores, Carlos Garziandia, Pedro Mari Pellejero, Lorenzo Lopetegi, Vicente Larrañaga, Pedro Etxarri eta Eliseo Insausti ziren 1. faseko Lagun Arteko jokalarietako batzuk. Partidak Nafarroako Futbol Federaziokoak araututakoak ziren eta Zelai Eder zen Lagun Artearen zelaia, egun Lakuntzako parkeko futbol zelai txikia dena, orduko larrainak.

Kluba 1966 urtean sortu zen ofizialki

Futbol taldearen 2. etapa, beraz, 1966 urtean hasi zen. "Futbola izugarri gustuko genuen. Lagunen artean futbolearen eta pilotaren aritzen ginen, orduan ez zegoen besterik. Gure artean aipatzen hasi ginen, ea zergatik ez genuen Nafarroako Futbol Federazioak antolatutako txapelketaren batean parte hartzen, eta gogoan dut egun batean Nafarroako Futbol Federaziora joan ginela, informazio eske. Arratsaldeko 17:30etako trena hartu genuen, Lakuntzan, Iruñean federatu ahal izateko egin beharrekoek galdetu genuen, eta 20:30etako trenean bueltatu ginen berriro. Federazioak eskatutako paperak bete genituen eta 1966ko abuztuaren 12an sortu zen C.D. Lagun Artea taldea, ofizialki. Sakanako kirol talde zaharrena edo zaharrenetakoa izango da" aipatu du Miguel Angel Aretak.

Taldeko lehen presidentea Jesus Mari Zabarte Ganboa "Casto" zen; presidenteordea Jose Luis Lakuntza Artieda; idazkaria Carlos Cabestrero Polo, Aretaren esanetan "Lakuntzako Tot-Garais fundizioan lan egiten zuen Lizarrako futbol zaletu bat, 'El yenca' goitizena zuena"; diruzaina Miguel Angel Areta bera; eta bokalak Tomas Equert Eseverri eta Julian Flores Flores. "Izenarekin ez genuen inolako zalantzarik izan, eta aurretik egondako taldearen izena hartu genuen, Lagun Artea. Eta Nafarroako Futbol Federazioko azken kategorian hasi ginen lehiatzen, 2. Erregional mailan. Gogoan dut hurrengo urtean, 1967an, Altsasu taldea sortu zela, ofizialki, lehen esan dudan moduan Lagun Artearen lehen etapa horretan ere Altsasun talde bat baitzegoen, baina esta-

tutuekin 1967an sortu zuten taldea. Eta Etxarri beranduago sortu zen" gaineratu du Aretak.

Orduko oroitzapen gozoak ditu Miguel Angelek. "Taldekodiruzaina nintzen, eta, aldi berean, futbolaria. Exkerra etxeko Pakito Garziandia zen gure entrenatzailea, eta ondoren Sebastian Floresekin hartu zuen ardura. Futbolari bikaina izan zen Sebastian, baina lesio larria izan zuen eta futbola utzi behar izan zuen. Entrenatzaile izan genuen, oso entrenatzaile ona. Orduko Lagun Artea herriko futbol talde bat zen, Nafarroako beste hainbat talde bezala. Garai haietan Iruñeko taldeak nabarmen ziren; futbol gehiago ikusten zuten, talde gehiago zeuden... beraiek irabaztea kosta egiten zen" gogoratzen du Aretak.

Lehen fasean bezala, partidak Zelai Ederren jokatzeko zituzten. "Zelai Ederrek zati batean aldatxo bat zeukan. Gu ohituta geunden, baina kanpotik etortzen ziren taldeek barre egiten zigten eta esaten ziguten: 'Hara nolako zelaia, aldapa eta guzti!' dio Aretak.

Itxesalde futbol zelaia

Zelai Eder ez zen jokatzeko zelai egokia. "Federazioak ez zuen begi onez ikusten, eta horretaz gain zelaia ez zen gurea, partikularrena zen, herriarrena, udan eultzia egiteko. Taldean argi genuen modu serioagoan jokatu nahi genuela, eta horregatik udaletxera joan ginen, futbol zelaia non egin genezakeen galdetzer. Udalak erantzun zigun herriatik gertuenen zuen lursail egokiena Itxesaldekoa zela. Itxesalde, egia esan, ez zituen baldintza oso onak. Lur oso txarra zuen, buztintsua, ez zuen ura iragazten, eta euria egiten zuenean sekulako putzuak egoten ziren, eta zoru guztia lokaztu egiten zen, baina hori zen genuen bakarra. Zelaia 25 urterako utzi zigun Udalak eta urte horiek pasa eta gero, udalari bueltatu zitzaion jabetza. Egun udalaren jabetza da Itxesalde, nahiz eta kudeaketa Lagun Arteak egiten duen. Nabarmentzekoa da Itxe-

"FUTBOLAREKIKO ZALETASUN HANDIA EGON IZAN DA BETI LAKUNTZAN; ZELAIA BETE EGITEN ZEN"

salde auzolanean egin zela; Lakuntzako jende askok parte hartu zuen zelaia egiteko lanetan" ekartzen du gogora Aretak.

Futbolarekiko zaletasun handia egon izan da beti Lakuntzan eta Lagun Arteak primerako harreara izan zuen. "Futbola kirol berria zen une hartan eta herritarrek sekulako gogoekin hartu zuen. Jende asko joaten zen partidak ikustera eta taldea animatzera, asteburuko plana zen askorendako eta sekulako giroa egoten zen" aipatu du Aretak.

1974ko Nafarroako Udaberriko Kopa

Lagun Arteak 2. Erregional mailan hasi zen lehiatzen, eta bizpahiru urtetara 1. Erregional Mailara igo zen. Preferente Maila eta 3. maila zeuden haren gainetik. Lagun Arteak Itxesaldeko zelaian izan zituen arerioen artean Osasuna Promesas, Erice, Haro, River Ebro, La Calzada eta beste zeuden. Lagun Artearen unerik gozoena 1974ko ekainaren 29koa izan zen. Egun hartan, Azagran, Nafarroako Udaberriko Kopa irabazi zuen Lagun Arteak, Peña Azagresari 1 eta 2 irabazi eta gero. Taldea ondoko jokalariek osatzen zuten: Jose Mari Lopetegi, Mikel Arregi "Mele", Jose Manuel Mañeru, Felix Alegria, Javier Pazos, Javier Andueza, Joxe Ramon Lopetegi, Juan Pedro Lazkano, Miguel Lazkano, Martin Lizarraga, Santi Bakaikoa, Santiago Arregi, Juan Jose Burillo, Gregorio Burillo, Santiago Mendieta eta Jose Maria Maiza, Pedro Mari Lopetegi entrenatzaile zutela. "Zalantzarik gabe, garai hartako Lagun Arteako talderik onena izan zen hau. Sekulako taldea genuen, Lagun Arteak arerio gogorra zen orduan. 2. faseko urrezko garaiak izan ziren haiek" dio Aretak. Ordukoa da Bat, bi, hiru, lau... kantuaren doinua jarraiki Lakuntzan kantatzen zen doinua: "Tenemos un portero / que se llama Juan Pello / le tiran un penalty / y no le meten gol / Bat, bi, hiru, lau..."

Taldea 1983an desagertu zen eta 1996an berpiztu

Urteak aurrera egin ahala behera egin zuen Lagun Arteak, 1983an taldea desagertu zen arte. "Zergatik? Gauza asko izan ziren. Ez dakit jendeak zaletasuna galduko ote zuen, edo jokalaria nahikorik ez zegoen... kontua da guztiak



1974ko ekainaren 29an Lagun Arteak Azagran Nafarroako Udaberriko Kopa irabazi zuenekoia. LAGUN ARTEA

bat egin zuela Lakuntzan futbola bukatzeko" aipatu digu Aretak. Baina Lakuntzan 13 urte futbolarik gabe egon ondoren, 1996/1997 denboraldian Lagun Arteak taldea birsortu egin zen eta bere 3. etapari ekin zion taldeak. Gehienbat orduko gazteen gurasoak izan ziren Lagun Arteak berriro martxan jartzeko ardura hartu zutenak. "Ruiz de Erentxun eta beste hasi ziren taldea birsortzeko lanetan, eta Jesus Mari Goikoetxea, Javier Andueza, Mendieta, ni eta gaitz nontzekoak ere, betikoak, lanean hasi ginen. Asmoa herriko gazteei futboleko aukera ematea zen, eta talde dezentea sor zitekeela jabetu ginen. Lehen denboraldia, 1996/1997koa, Uharte Arakilgo zelaian jokatu genuen, Itxesalde konpontzen genuen bitartean. Eta berriro futbolarekiko zaletasuna piztu zen Lakuntzan; partidak ikustera jende asko joaten hasi zen, Uharte zelaia bete egiten zen eta gora egin zuen futbolariek atzera ere. Sekulako giroa egoten zen" dio Aretak. Herriko musikariek ere Lagun Artearen ereserkia egin zuten.

13 urtez utzita egon ondoren, Itxesalde egoera penagarrian zegoen eta goitik behera konpondu behar izan zuten. "Alda-

"1974KO NAFARROAKO UDABERRIKO KOPA IRABAZI ZUEN LAGUNEK; SEKULAKO TALDEA GENUEN"

gelak apurtuta zeuden eta zelaia egoera oso kaxkarrean, zelaira ganadua sartzen zelako. CAN-era jo genuen Itxesalde konpontzeko kreditua eskatzera. 30.000 euroko kreditua eman ziguten, garaiko juntako kideek bermatu behar izan genuena" nabarmendu du Aretak. Zelaian area botatzea erabaki zuten eta zelaia inklinazioa eman zitzaion euria egiten zuenean ura alboetara joan zedin. Aurrekoan bezala, auzolanean egin ziren lan asko.

1998an, Zelai Berri

Lagun Arteak taldeak 1997/1998 denboraldiari Itxesalden ekin zion. Sekulako giroa egoten zen. "Behin, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioari zuzendari Jose Luis Diez Diaz partida bat ikustera etorri zen Itxesaldera, futbol zaletu handia baitzen, eta aipatu zigun zelai hori ezin zela orduan egin berria zen Sakanako Autobidetik horren gertu egon. Sare handi bat jarri genuen atearen atzean, baloiak gelditzeko. Diez jauna Lakuntzako udalarekin harremanetan jarri zen eta udal ordezkariak esan zien Itxesalde utzi beharra genuela eta trukean zelai berri bat egiteko dirulaguntza eman go ziotela udalari. Lakuntzako Udalak aukerak aztertu zituen eta egungo Zelai Berri egin zuten. Izen hori taldearen lehen zelaia izandako Zelai Ederren omenez jarri genion, izenaren aldaera bat" kontatu digu Aretak.

Nolanahi ere, Lagun Arteak ez du Itxesalde inoiz itxi. Han jokatzen dira kategoria txikiko partidak, eta horri esker, Zelai Berriko zelaia ez da apurtzen. "Nahiz eta Zelai Berri bikaina izan eta drainatze sistema ona izan, partida guztiak han jokatuz gero, izorratuko litzateke. Itxesalde ezinbestekoa dugu" ondorioztatu du urte luzez Lagun Arteako idazkari izan denak.

Atzera ere, auzolanean

Lakuntzako Udalak Zelai Berriko zelaiko lanak egin zituen, baina taberna eta harmailak egiteko lanak juntako kideek egin zituzten. "Hasiera batean harmailak eta taberna egin genituen, ondoren txoko eder bat, komunak... lan handia. Lakuntzan, egia esan, lan asko eta asko egin izan dira auzolanean, baita Lagun Artean ere. Javier Andueza langile aparta da, Goikoetxeak ere eraikuntzan ideia du, Mendieta anaiak kisuskilak dira... badakizu, guztiok izan ditugu taldean ekarpena egiteko moduko ofizioak. Nik Uharte Arakilgo banketxean egiten nuen lan, eta Lagun Artean paperak kudeatzen nituen, zenbakiak... gauza horiek. Uste baino mugimendu gehiago

"LAKUNTZA BEZALAKO HERRI TXIKI BATENDAKO 3. MAILARA IGOTZEA SEKULAKOA IZAN ZEN"

izaten da: aktak, federazioari egin beharreko erreklamazioak edo errekursoak... beti badago zerbait" dio Aretak. Zelaia bikain mantentzeko ere lan andana egin beharra dago. "Belar naturaleko futbol zelai bat mantentzeak lan izugarria du" aitortzen du.

Di Stefano, Clemente eta beste Zelai Berrin

Zelai Berri 1998ean egin zen eta abuztuaren 15ean mustu zen, Espainiako Ligako 1. mailako partida batekin: Alaves - Real Valladolid. Urte bat geroago Asador Fronton Trofeoa jokatu zen Zelai Berrin, 1. mailako beste partida batekin: Osasuna - Alaves. Ohorezko sakea Real Madrid taldeko jokalaria ohi Alfredo Di Stefanok egin zuen, orduko Espainiako selekzioak hautatzaile Javier Clementerekin batera. "Miguel Ansorena, Madrilgo Fronton jatetxeko nagusia, Lakuntzara etortzen zen urtero, emaztea bertakoa baitu, eta Madrilgo bere jatetxera puntako futbolariak eta entrenatzaileak joaten ziren. Di Stefano eta Clemente bezeroak eta lagunak zituen, eta Miguelek gonbidatuta etorri ziren Lakuntzara. Izar haiek Lakuntza bezalako herri batera etortzea ez da nolanahiko gauza, e? Gogoan ere badut beste behin Luis Aragones Lakuntzan egon zela, Miguelekin. Miguelek Lagun Artearen alde asko egin du. Futbolariek ezagun horiek guztiak bazkide egin zituen eta, horrela, dirua lortzen zuen klubarendako" azpimarratu du Lagun Arteko idazkari ohiak.

Horretaz gain, 1. mailako beste partida batzuk jokatu izan dira Zelai Berrin. 2004ko abuztuaren 14an Alaves-Real Oviedo; 2007ko abuztuaren 2an Osasuna-Alaves; 2008ko uztailaren 30ean Osasuna Promesas-Alaves (1. mailan zegoen); eta 2011n Osasuna-Numancia (azken hau 2. mailan). Horretaz gain, 2004ko martxoaren 21ean Zelai Berrin gazte mailako selekzioen partida jokatu zen, Nafarroa eta Valentziako selekzioen artekoa, eta Nafarroak 1 eta 0 irabazi zuen. "Lagun Arteko juntako kide Ruiz de Erentxun Patxi Izko Osasunako presidenten zenaen laguna zen eta Zelai Berri eskaintzen zien Osasunak aurre denboraldietako partidetako bat bertan jokatzeko. Beraiei ere ongi etortzen zitzaion, eta partida politikoki jokatu ziren" dio Aretak. Horregatik guztiatik



2019/2020 denboraldiko Lagun Arteko kategorio guztietako taldeak, Zelai Berrin. LAGUN ARTEA

eta futboleant urte luzez daramatzalako, futbolaren munduan ezaguna da Lagun Arteak. "50 urte baino gehiago sortu ginen... bada zerbait" dio Aretak.

Bost urte 3. mailan

Lagun Arteak 2004an 3. mailara igotzea lortu zuen. "Hori sekulakoa izan zen. Lakuntza bezalakoa herri txiki bateko futbol taldea 5 denboralditan 3 mailan egotea handia da. 2004/2005, 2005/2006, 2010/2011/, 2012/2013 eta 2013/2014 denboraldietan egon zen Lagun Arteak 3. mailan. Mailari eusteko taldea indartu behar izan genuen. Hori izan zen 3. mailan egotearen alde txarra, kategoriari eutsi ahal izateko jendea kanpotik ekarri behar izatea. 3. mailan egoteak aurrekontu handia eskatzen du. Arbitrajeak garestiagoak dira, zigorrak ere garestiagoak... baina

trukean dirulaguntza gehiago jasotzen dituzu. Izan ere, 3. maila Espainiako Futbol Federazioaren ardura da, eta hortik behar-rakoak Nafarroako Federazioak kudeatzen ditu. Kategorio txikiek oso laguntza gutxi dauzkate" azaldu du Aretak.

Datorren denboraldian Maila Autonomikora

2014an 3. maila galdu zuenetik, gehienbat Preferente mailan aritu izan da Lagun Arteak, futbolari sakandarrekin. "Duela bi urte, 2017/2018an, mailaz jaitsi ginen, baina hurrengo urtean, 2018/2019an berriz Preferentera igo ginen eta aurtun, Maila Autonomikora. Bi igoera jarraian, hori oso zaila da" dio Aretak. David Herrera entrenatzailearen esanetara, lan bikaina egin du aurtun taldeak lakuntzarrez eta sakandarrez osatutako taldeak.

Kategoria Autonomikoa duela lau urte sortu zuen Nafarroako Futbol Federazioak, 3. mailaren eta Preferente mailaren artean. Egia esan, ez dakit federazioak zergatik sortu zuen kategorio berri hau; printzipioz pentsatzekoa da jokoaren alde-tik Preferente mailakoa baino maila altuagoa izango duela, ikusiko dugu" gaineratu du Lagun Arteko idazkari ohiak. Badirudi kategorio berriari eusteko bidean Lagun Arteak ez duela taldea gehiegi indartuko. "Gaudenok jokatu dugu. Sufritzea tokatzen zaigula? Ezin dugula maila mantendu? Gutxienik urte bat jokatu dugu maila Autonomikora. Izan behar duena izan dadila. Dena den, mantentzea errazagoa da, igotzea zailagoa da. Hor dabil Altsasu, Erregionaletik ezin igo; oso zaila da" berresten du Aretak.

Lagun Arteak gaur egun

Lagun Arteak 2019/2020 denboraldian 111 jokalarik izan ditu guztira, horietatik 110 sakandar, Kimuentaldea, haurren mailakoa, kadeteen mailakoa, jubenilen mailakoa, maila Autonomikora igo den Preferente taldea, eta aurtun sortu berri den emakumezkoen taldea ditu Lakuntzako klubak. 140 bazkide inguru ditu taldeak, hortik 6.000 euro pasatxo sartzen dira eta partidetak sarrekin eta zozketekin ez da asko lortzen. "Babesle guztien laguntza eskertzekoa da. Sakana Kooperatiba ezinbestekoa da Lagun Artearendako" eskertzen du Aretak. Talde nagusiak lortutakoak gain, Lagun Arteko gazte mailako taldeak berri onak ekarri ditu. 2018/2019 denboraldian Nafarroako Udaberriko Kopa lortu zuen, eta aurtun gazteen 1. mailara igotzea lortu dute

jubenilek, Altsasu jubenilen taldearekin batera. Horrenbeste lorpen daude ospatzeko, baina alarma egora dela eta, ezin. "Hau da marka, hau! Eta banago ni egoera hau luzerako doala..." dio Aretak.

Urte luzez juntan egon ondoren, Miguel Angel Areta ez da egun juntako idazkaria. "Diruzain hasi nintzen, baina berehala idazkari jarri ninduten. Egun zuzendaritzako Whatsappean jarraitzen dugu lehengo junta-koek, laguntza eman behar badugu beti prest, baina zuzendaritzan erreleboa egon zen eta oso kontentua gaude alde horretatik. Urte asko generamatzen, eta beti ona da taldeetan jende gaztea sartzea, gogotsu eta indarberrituta" dio Aretak. Ildo honetan, urte hauetan galdutako kideak ditu gogoan Aretak. "Guztiak ez dira pozak izan gu-rean" adierazi du, Santiago Mendieta, Jose Miguel Olano eta Jesus Arraiza juntako kide izandakoak eta Jose Luis Aramendia futbolari izandakoa gogoan.

Egungo junta

Jabier Hernandez Santana da Lagun Arteko egungo presidentea, ondoko juntakideak alboan dituela: Jesus Zubiria, Josu Arraiza, Oskar Maiza, Jabier Gasco, Jabier Andueza, Juan Ignacio Mendieta, Diego Cruz, Asier Arregi, Juan Ignazio Maiza, Juantxo Arraiza eta Jose Agirre.

"Federazioak hartu beharreko erabakia zaila zen"

IOSU MURGIENDO ETXARRI TALDEKO ENTRENATZAILEA

Nafarroako Futbol Federazioak erabaki du aurtun ez dela jaitsierarik egongo. Etxarrin nola hartu duzue erabakia?

Azkenean, futbol munduan gabiltzanok partidak jokatzeko da gustuko duguna, eta egoera hau guztia oso arraroa izan da. Nafarroako Federazioak hartu beharreko erabakia ez zen batere erraza. Argi dago erabaki justu bat eta denon gustukoa izango dena hartzea ezinezkoa dela, eta nik uste dut federazioak erabakirik egokiena hartzen saiatu dela. Gainera, aurretik Espainiako Futbol Federazioak erabakia zuen 2. B mailatik ez zela talderik jaitsiko, eta hori aurrekari bat izan da, ildo horretatik jarraitu du Nafarroako Futbol Federazioak, igoerak bai baina jaitsierarik ez dela egongo erabakia. Gu saikapean azkenak ginen, baina oraindik 9 jardun-

naldi geratzen ziren denboraldia bukatzeko, eta nahiz eta egoera oso konplexuan egon, mantentzeko aukera egon, bazegoen. Jaitsiko bagina ez litzateke justua izango, oraindik 9 jardunaldi geratzen zirelako, baina federazioak jaitsierak egongo ez direla erabaki duelako, guk Preferentean jarraitzea ere ez dakit justua den. Arraroa da, konplexua. Nolanahi ere, igoerak bai baina jaitsierarik ez egoteak asko baldintzatuko du datorren denboraldia, orain arte ezagutu dugun liga-ko antolaketa zeharo alda daitekeelako.

Horrenbesteko aldaketak egongo al da? Orain arte Preferente mailan 30 talde egon izan dira, bi multzotan banatuta, eta hurrengo urtean 33 talde egongo gara. Entzuten da Preferente mailan bi multzo egon beharrean 3 multzo egongo direla, bakoitza 11 taldez

osatutakoa. Hori horrela bada, maila Autonomikora igotzeko saikatzeko eta mailari eustea bera zailagoa izanen da. Gure helburua Preferente mailari eustea izaten da, eta planteamendu berri horrek mailari eusteko lana zailduko luke. Horiek entzuten diren kontuak dira, oraindik ez dira erabaki ofizialak, baina orain arte entzuten ziren gauzak gero konfirmatzen joan dira eta litekeena da egoera berri hori suertatzea.

Horrela izanez gero, jaitsiera postu arriskutsu horietan sartzeko aukera gehiago leudeke...

Bai, arrisku gehiago. Dena den, momentuz dena airean dago. Denboraldia noiz hasiko den, zein baldintzatan, nola... Entzun ere egiten da hiruzpalau urteren buruan orain arteko egoerara bueltatu nahi dutela, guztia

orekatu nahi dutela, baina formatu berria sortzen bada, ez dakit gero iraungo duen edo berriz atzera egingo duten, orain artekorat.

Mailari eutsita, zein sentipenekin dago Etxarri?

Zer esango dizut. Batetik sententzia ona da, Preferentean jarraitzen dugu. Inori ez zaio gustatzen horrela lortu izana, baina mailari eustea zen helburua eta lortu da. Denboraldi gogorra izan da; sarritan partida askotan askoz ere gehiago merezi izan dugun sentipena izan dugu, baina futboleant gola ez baduzu sartzen berdin da zein meritu egin dituzun. Normalean zortea ez dugu alde izaten, eta alde horretatik mailari eustea berri ona da. Gainera, federazioak ez du erabaki hau hartu Etxarri Aranzti edo igoko den Lagun Arteari mesede egiteko.

Datorren denboraldirako gogotsu?

Gogotsu gaude. Jokalarik gazteagoek esperientzia handiagoa dute, eta ilusioa piztuko duen jokalariren bat etorriko da. Uste dut hurrengo denboraldia oso desberdina izango dela.



Musika eskolan matrikula egiteko epea ireki dute.

Musika eta dantza ikasketak egokituz

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako irakasleek klaseen jarraipena egin dute konfinamenduan ere. Matrikula garaia iritsi da, eta badaezpada datorren ikasturterako "ezohiko egoerara" egokitu dute eskola

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Egun batetik bestera Altsasuko Musika eta Dantza Eskola itxi behar izan zuten. Irakasleendako erronka hasiz orduan. "Egun oso zailak izan dira. Guztiontzat egoera berria izan da eta moldatu behar izan dugu modu batera edo bestera". Jokin Borromeo Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria da, eta konfinamenduan musika eta dantza ikasleen jarraipena egin dutela esan du. "Argi dago ez dela berdina izango klase presentzialak edo telematikoko ematea. Baina ikasleen jarraipena mantentzen saiatu gara. Horretan gabilta". Matrikula epea ireki berri da, eta datozen bi astetan Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan izena emateko aukera izango da. "Egoera berri honetara egokitu dugu eskola".

Hizkuntza musikala, hainbat musika instrumentu, kantua eta taldeko instrumentuak ikasketak eskaintzen dira, besteak beste, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan. Koronabirusak sortutako ezohiko egoeran ere klaseekin jarraitu dute. Etxetik eta ikasleen egoeretara moldatuz. "Bakarkako klaseak, instrumentuak eta kantua, esaterako, erra-

zagoak dira. Ikaslearekin ordua adosten duzu eta streaming bidez zuzenean eman daiteke klasea. Baina konturatu ginen familia bakoitzaren egoera desberdina zela". Hortaz, zuzenean klaseak jasotzeko aukera ez zutenei bideoen bidez eskaini dizkiete klaseak. "Ikasleak bideoa grabatzen du, irakasleari bidaltzen dio eta irakasleak ikusten eta aztertzen du". Irakasleek "izugarritzko lana" egin dutela eta egiten ari direla azaldu du Borromeok.

Hizkuntza musikala edo taldeko klaseak emateko zailtasunak areagotzen ziren. Alde batetik, familien egoera desberdinak zeuden, eta, bestetik, irakasleek etxean ez zituztela klaseak behar bezala emateko materiala. Beraz, jarraipena "lanen bitartez" izan dela esan du zuzendariak. "Postaz etxerako lanak bidali, irakasleari eginak itzuli eta horrela astero". Orain arte egindakoaren "errefortzua" egin dutela azaldu du Borromeok. "Ez da materia-rekin aurrera egin. Ezinezkoa zen". Hezkuntza Departamentutik bidalitakoaren pean aritu dira. Konfinamenduaren lehengo asteak "zailagoak" izan ziren arren, ikasleek erantzun dute. "Denbora pasa ahala eta

ikustean egoera luzatzen ari zela geroz eta errazagoa izan da".

Musika eta dantza

Konfinamenduak iraun duen bi hilabetetan 20:00etan hainbat musikari balkoiara ater dira bere musika elkarbanatzera. "Leku guztietan izan da. Familek esan digute ater direla". Gainera, musika eskola mailan "zerbait prestatzen" ari direla aurreratu du Borromeok. "Klaseetara ez garenez itzuliko, kurtsoari amaiera desberdin bat emateko zerbait egiten ari gara".

Izan ere, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako musikariak hasieratik ohitzen dira kalera eta eszenatokira ateratzera. "Helburu pedagogietako bat da. Musikiariak eta dantzariak egiten dutena erakutsi behar dute, eta hasieran gogorra bada ere, gero ohitzen dira". Aurten ikasturte amaieran egiten duten kontzertu erraldoia, zein beste hainbat emandaldi bertan behera gelditu dira.

"Hainbat arrazoi daude musika eta dantza ikasteko. Ikerketek erakutsi dute psikologikoki laguntzen duela. Ez bakarrik maila pertsonalean, talde lanean aritzean ikasleentzat oso onuragarria da". Beste pertsonekin

harremanak egiten laguntzen duela gaineratu du Borromeok. Hala ere, egoera ikusita datorren kasturtea nolakoa izango den pentsatzen ari dira orain. "Matrikula garaia ireki dugu eta bi astez irekita egongo da". Taldeak osatuko dituzte ere eta matrikula ofiziala ikasturtea hasi aurretik egin beharko dutela esan du musika eta dantza eskolako zuzendariak.

Hurrengo ikasturteari begira Altsasuko Musika eta Dantza Eskola ezohiko egoera honetara egokitu da. "Errepikatuko balitz prest gaude". Horrela, klaseak etxetik jaso behar badituzte ere, irakasleek bete beharreko baldintzak izango dituzte. "Eskolan orain arte ez genuen Internet, jarri dugu, eta, beraz, irakasleek bertatik eman ditzakete klaseak orain.

Ikasketak

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak 3 urtetatik aurrerakoentzat ikasketak eskaintzen ditu. 3 eta 6 urte bitartean musika eta mugimendua eskaintzen dute, eta 5 urtetatik aurrera dantza. Musikan hiru ziklo daude, eta ziklo bakoitzean hiru kurtso. Hizkuntza musikala, esaterako, sei kurtso derrigorrezkoak dira. Instrumentuetako klaseak ere badira, eta ikasleek nahi duten instrumentua aukeratu dezakete, "betiere lekua badago". Horregatik, matrikula egiteko orduan ikasleei hiru instrumentu aukeratzeko eskatzen diete, "instrumentu batean plazak betetzen badira, bigarren eskaini ahal izateko". Dantzaren kasuan hiru ziklo daude, baina kurtsoak desberdinak dira.



ZORION AGURRAK



Egoitz
Zorionak futbolari!
Aste honetan 7 urte
beteko dituzu. Ongi
pasa. Mila muxu
Oihan, aitaren eta
amaren partez.



Egoitz
Zorionak!! Ongi pasa
zure eguna. Muxu
pottolo bat, Aguraingo
eta Arbizuko familiaren
partez, laster ospatuko
dugu.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 22

**ETXARRI ARANATZ ETA
ALTSASU Patxi Ruizzen aldeko
mobilizazioa.**
20:00etan, plazan

ASTELEHENA 25

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Jubilatuen eta
Pentsiodunen Koordinakundeko
kontzentrazioa.
11:00etan, udaletxe parean.

ASTEAZKENA 27

**SAKANA Wikipediaren bidez
#SakanaDigitala sustatzen.**
Wikipedia, Sakandarron ondare
digitala komunala hitzaldi digitala.
17:00etatik 18:30era, meet.jit.si/
sakanapedia.

OSTEGUNA 28

**SAKANA Hezkidetzan hezi,
berdintasunean bizi hitzaldia.**
Hizlaria: Edurne Mendizabal Tolosa.
Sakanako Mankomunitateko

Berdintasun zerbitzuan izena eman:
berdintasuna@sakana-mank.eus
edo 660 384 328.
17:30ean, Zoom plataformaren
bidez.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Etxeko aurpegi- maskara eraginkorrak

Konfinamendua dela eta, eroske-
ta handiak egin ditugu eta askotan
produktuek freskotasuna galdu
dute, gure estetika zentroak itxita
egon dira eta hainbat gauza pro-
batzeko aisia handiegia izan dugu.
Hona hemen nik neuk probatuta-
ko hainbat aurpegi-maskara mer-
ke eta erraz; astean behin erabili
ditzakegu eta azal sentikorra
baduzu, limoia dutenekin kontu
handiz ibili. Esfoliatu ondoren
maskara hidratatzailea erabiltzea
konbinazio egokia izan daiteke.

1. Hidratatzeko: Osagaiak: 4/5
marrubi eta ezti. Marrubiak
txikituko ditugu eta bi edo hiru

Maiatzaren 26tik Iortiarene txarteldegia zabalik

Kultur guneak denboraldia amaitutzat eman du, eta
atzeratutako ikuskizunen data berriak aurkeztu ditu

ALTSASU

Koronabirusak sortutako osasun
krisialdia dela eta, martxoaren
14an Iortia kultur gunea itxi zuten.

Hiru hilabete hauetan hainbat
ikuskizun programatuta zeuden,
baina ezohiko egoera dela eta zi-
nema, zuzeneko eta erakusketa
denboraldiari amaiera ematea
erabaki du kultur guneak. Irailean
2020-2021 denboraldia hasiko dute,
eta martxoan, apirilean eta maiat-
zean izan behar ziren ekitaldiak
denboraldi berrian berprograma-
tu dituzte eta 2020ko udazkenaren
eta 2021eko urtarrilaren artean
eskainiko dituzte. Maiatzaren
26an, asteartean, Iortia kultur
guneako txarteldegia irekiko dute.
Hiru aukera daude: ikuskizunaren
data berrirako sarrerak mantene-
tzea, egindako erosketak bertan
behera utzi eta kredituaren zen-



Iortia kultur gunearen atea. ARTXIBOA

batekoa etorkizunean sarrerak
erosteko utzi edo atzeratutako
ikuskizunaren dirua itzultzea.

Martxoan, apirilean eta maiat-
zean goi mailako ikuskizunak

izan behar ziren Altsasuko kul-
tur gunean. Emanaldi hauetako
sarrera ia gehienak salduta edo
erdi salduta zeuden, eta horre-
gatik ikuskizunen programazioa
mantentzeko ahalegina egin dute.
Hortaz, Kukai Dantza konpai-
niaren *Gauekoak* irailaren 6an
izanen da; Pistacatro eta Haize
Berrian Bandaren *Orquesta Ma-
labaren* ikuskizuna urriaren
18an izanen da; Txalo Produk-
zioak-en *Juntos* antzezlan aza-
roaren 21ean izanen da; Jarleku
Teatroren Etxerik txikiena aben-
duaren 3an; Suakai taldearen
Luces, musica, jacción! Ikuskizu-
na abenduaren 8an izanen da,
Cia Rolabola-ren *Rock Cirk*
2021eko urtarrilaren 8an izanen
da eta PanicMap konpainiaren
Big Blu ikuskizuna urtarrilaren
24an izanen da. Gainera, Tras-
teando, Burundar Txistulariak,
Haize Berriak Banda eta Erku-
dengo Ama Abesbatza herriko
taldeen ikasturte amaierako
emanaldiak ere egitekoak ziren,
eta taldeekin "beste aukera batzuk
baloratzeko" harremanetan ja-
rriko direla esan dute Iortiatik.

ezti koilarakadarekin nahastu;
aurpegian 20 minutuz utziz, der-
misa leunduko digu eta hidratatu.

2. Esfoliatzeko: Osagaiak: 2
arrendol edo almendra, ezti eta
limoia. Lehenik eta behin arben-
dolak hauts moduan utziko ditu-
gu, eta ondoren limoizko zuku
koilarakada eta ezti koilarakada
batekin nahastu. Aurpegian ipi-
ni masajetxo txiki batzuk eginez
eta aurpegian 10/15 minutuz
utziz. Beste aukera bat ondoko
izan daiteke: azukrea olio zurru-
sata batekin eta limoi tantekin
(erabiltzeko modu bera).

3. Azal koipetsuendako: Dir-
dira desatseginei aio! Osagaiak:
3 koilarakada jogurt natural, 2
koilarakada olo eta 2 laranja birrin-
dura. Osagai guztiak ondo nahas-
tu eta aurpegian ipini 10 minutuz.

4. Azal lehorrendako: Osa-
gaiak: Banana, ezti koilarakada
bat eta 4 koilarakada olo. Aurpe-
gian 15 minutuz utziko dugu.

Beste proposamen bat: banana
baten mamia, ahuakate bat, ezti
pittin bat eta krema hidratatzaile
pittin bat ondo nahastu eta
hogeiminutuz utzi gure aurpegian.

5. Orbanendako: Osagaiak: Ezti
eta limoi koilarakada bat. 15 minu-
tuz utziko dugu, aurpegian lan egin
dezan. Beste bi proposamen: Lehe-
nengo, 2 koilarakada bikarbona-
to, ur koilarakada bat eta limoi
tanta batzuk ondo nahastu eta 15
minutu utzi, lan egin dezan. Biga-
rrera, luzoker erdi bat (birrindua),
perrexila eta sesamo olio koilara-
kada bat. 15 minutuz jarrita izan.

6. Aknea: Osagaiak: kamami-
la infusioa, aloe vera landarearen
barneko likidoa eta martorri edo
zilantroa. Denak ondo nahasi eta
birrindu, 15 minutuz jarri eta ur
epelarekin kendu.

7. Garbiketa sakona: Osagaiak:
almendra olio, ezti koilarakada
erdi eta limoi zuku pittin bat. 15
minutuz utziko dugulan egin dezan.

8. Azala birsortzeko: Osa-
gaiak: melokotoi puska batzuk
eta arrautza baten zuringoa. Dena
birrinduko dugu eta 15 minutuz
ipini, melokotoiak azal ilunei
argia ematen lagunduko digu.

9. Zahartze prozesu gelditzea:
Osagaiak: 2 azenario, limoi erdia eta
bi jogurt koilarakada. Jogurtak ten-
sore efektua dauka eta lehen adin
sintomak ekiditen lagunduko digu.
Hau ordu erdi bat utziko dugu, ondo-
ren ur hotzarekin kentzeko.

10. Zelulitisa: Osagaiak: kafe
irindua (katilu erdia) eta azukre
beltzarana (laurdena). Bi osagaiak
ongi nahasi behar ditugu eta
trinkotasuna hobetu nahi badu-
gu, olio koilarakada batekin
lortuko dugu. Mugimendu zir-
kularrekin masajea eman eta
ondoren ur hotzarekin garbitu
(asteaz bizpahiru aldiz). Beste
proposamen bat: Sagar ozpina
urarekin nahastu eta masajea
emanez (asteaz hiruzpalau aldiz).



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarras.com • www.dekovenavarras.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Fax: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

ESKELA

 **Lourdes Gurutzeaga Etxarri**
Juanxo Uribe-etxeberriaren alarguna

Izar berri bat ageri da
Gure zeru gainean

Flores Arregui familia
Iruñea - Lakuntza 2020ko maiatzaren 19a

ESKELA

 **Consuelo Lakuntza Zeberio** 
Andres Mari Lakuntzaren alarguna
—Goian bego—

Arbizun hil zen, 2020ko maiatzaren 17an, 79 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

Bere semeak, Joseba, Ander eta Amaia Unzilla, Benito eta Gema Mateo, Javier, Mikel eta Ana Parache; ilobak, Amañur, Irati, Ander, Lucia, June; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilebak eta gainerako ahaideak

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Altsasun, asteburuetan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

LEHIAKETAK

Etxarri Aranazko abesbatzaren 50. urteurrenaren logotipo lehiaketa: Edo-nork parte har dezake. DIN A4 formatuan (ordenagailuz edo eskuz egin da), gehienez bi lan aurkez daitezke. Saria 150 euro. Lanak uztailaren 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 tfnoan.

OHARRAK

Sakanako Mankomunitateak Lakuntzako bulegoan zuzeneko arreta emango du maiatzaren 25etik aurrera, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Hitzordua izatea eta masakila eramatea derrigorrezkoak izango dira. Hitzordua hartzeko: Zerbitzu orokorra 948 464 867 - info@sakana-mank.eus / Euskara 948 464 840 euskara1@sakana-mank.eus / Kirolak 948 464 866 kirolak@sakana-mank.eus / EZABU 948 576 293 Ezabu@sakana-mank.eus / Zabor bilketa 900 730 450 h22@sakana-mank.eus / Ura 948 464 867(ext.4)

ura@sakana-mank.eus / Inmigrazioa 648 070 710 anitzartean@sakana-mank.eus / Berdintasuna 948 464 867 berdintasuna@sakana-mank.eus.

Irurtzenen, Lakuntzan, Arbizon, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian ur kontagailua etxe barruan dutenek Sakanako Mankomunitatearen Ur Zerbitzura bidali behar dute beraien kontsumoaren datua. Horretarako, hots egin 948 464 867 telefonora (4. luzapena), whatsapp mezua bidali 663 399 732 telefono zenbakira edo ura@sakana-mank.eus e-posta helbidera bidali irakurketa. Kontagailuan komaren aurretik dauden beltzeko zenbakiak dira eman behar direnak.

Egunean Behin jokora jolastu nahi? Euskarazko galde-erantzunen jokoa da Egunean Behin, telefono mugikorreko aplikazioa. Egutero 10 galdera erantzun behar dira. Gainera, taldeak sortu daitezke eta ingurukoekin zure jakituria neurtu. Dagoeneko eginak dauden taldeetan sartzeko giltzak behar dira. Honako ibarrekotako taldeen giltzak: Sakana 2B2160, Lakuntza BC97D3, Bakaiku 1C2051, Urdingo Herria A253A9 Altsasu C5FD3D Ziordian CBBAF8. Jokoa-ren lagarren denboraldia garilaren hasierara arte izanen da.

Elkartasun sareak: koronabirusak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko elkartasun sareak eratu dira herrietan. Haiekin harremanetan jartzeko moduak dituzu hurrengoak: Irurtzenen, udaletxeko bulego ordutegian 948 500 051 telefonoa, eta hortik kanpo 618 636 199. Etxarri Aranatz hots egin 673 319 557 edo 671 603 012 telefonoetara. Bakaikun 622 268 161 da markatu beharreko telefonoa eta botiketarako 948 563 450 edo WhatsApp bidez 657 702 178. Altsasun 640 044 424 telefonora hots egin edo altsasukogazteaslanblada@gmail.com e-postara idatzi daiteke. Lakuntzan 650 866 423 tfnoan edo lakuntzaelkartasun-sarea@gmail.com e-postan. Arakilen 948 500 101 - 622 297 961 tfnoetan eta info@arakil.net e-postan. Azkenik, Arbizon 675 894 913 tfnora deitu edo idatzi alkatea@arbizu.eus posta elektronikora.

Uharte Arakilgo festetako zapia: Udalak herrian erroldatuta dauden eta joan den urtean jaio ziren umeei festetan zapia banatuko die. Erroldatuta ez dauden familiek eta festetako ttattarra hartzeko interesa dutenek, garagartzaroaren 5era arte eman dezakete izena info@uhartearakil.com e-posta helbidera idatziz.

www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA

 **Iosu Anduaga Goñi**
X. urteurrena
Maiatzaren 20an

Iosu, gure bihotzetan zaude

Zure familia

JAIOTZAK

• **Izar Mendinueta Flores**, maiatzaren 8an Arbizon

HERIOTZAK

• **Felipe Razkin Ezkurdia**, maiatzaren 14an Lakuntzan
• **Maria Angeles Berasategi Larraia**, maiatzaren 15ean Olaztin
• **Consuelo Lakuntza Zeberio**, maiatzaren 17an Arbizon

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



OROIGARRIA

 **Jose Miguel Olano**
X. urteurrena

Beti egonen zara gure bihotzetan

Bere aldeko urteurren meza igandean, maiatzaren 24an, goizeko 11:00etan Lakuntzako elizan izanen da.

Zure familia


IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

"Iritzi pertsonalerako lekutxo bat nahi nuen"

Ilñaki Berastegi kirol kazetari urdiaindarrak konfinamendua baliatu du proiektu berri bati ekiteko: Youtubeko kanala. Kirolari buruz hitz egiteaz gain, bere kazetari lana erakutsi nahi du

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

1 Nola bururatu zitzaizun Youtuben kanala irekitzea?

Euskadi Irratian Osasunaren partida eman behar nuen eta partidaren kontaketa nolakoa zen grabatzea bururatu zitzaidan. Hortik dator ideia. Kazetari gazteenek tresna hau erabiltzen dute bere ideiak sakonago lantzeko. Nire iritzi pertsonala adierazteko lekutxo bat nahi nuen. Orduan, konfinamenduan denbora gehiago izan dudanez aurretik nuen ideia hori garatzeko aprobetxatu dut.

2 Zeintzuk dira sakondu nahi dituzun gai horiek?

Askatasun gehiago duzu nahi duzuna esateko eta nahi duzun gai horretan zentratzeko. Adibidez, Osasunaren inguruko bideo asko egin ditut ezagutzen dudana gaia delako. Baina beste gauza batzuk ere landu ditut, adibidez, nazioarteko futbola. Marka pertsonala lantzeko aukera ematen dizu.

3 Beraz, helburua ere hori bada, ezta?

Kazetari bezala gehiago ezagutzera ematea, erakustea par-



Ilñaki Berastegi kirol kazetari urdiaindarra. UTZITAKOIA

tiden kontaketaz gain, analisia ere egin dezakedala. Esatari figura horretatik pixka bat analista figurara pasatu nahi izan dut.

4 Zerbait berezia ikasi al duzu Youtuben hasi aurretik?

Youtuben bertan tutorial asko daude eta horiek baliatu ditut. Filmora programa erabiltzen dut eta markoak eta miniaturak Photoshopen egiten ditut. Nahiko autodidakta izan da. Aparteko ezagutzarik gabe. Baina dauzkadan baliabide horiekin

ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz.

5 Zein baliabide tekniko erabiltzen dituzu?

Portatil bat, webcam-a eta gamer antzeko kasko batzuk ditut. Webcam-a erosi behar izan nuen. Etorkizunean chroma bat erabiltzea pentsatu dut, atzetik irudiren bat txertatzeko. Foko bat daukat eta agian beste bat beharko nuke argia benetan ona izan dadin.

6 Beraz, etorkizunean jarraituko al duzu?

Zalantza nuen euskaldunon merkaturak edo publiko potentziala mugatua delako, eta, gainera, gaia kirola delako. Nirea bezalakoak diren kanalak, baina erdaraz, askoz ikustaldi eta harpidedun gehiago dituzte. Horrek pixka bat frustratzen zaitu, baina nik hasieratik onartu nuen ez dela etekin ekonomikoa lortzeko. Nire marka lantzeko eta ez oxidatzeko da.

7 Nola izan da zure burua grabatzea? Lotsa sentitu al zenuen?

Normalean irradian aritzen garenok badugu babesleku hori, ez gaituztela ikusten, gure keinuak ez direla ikusten. Alde horretatik, lotsa apur bat sentitu nuen. Bigarren bideotik aurrera erosoago sentitu naiz. Gainera, ez naiz beti ni bakarrik agertzen, gonbidatuak eta elkarriketatuak izaten ditut.

8 Goi mailako kolaboratzaile, gonbidatu eta elkarriketatuak dira.

Guztiak euskaldunak dira. Eñaut Agirrebengoarekin eta Alessandro Ruta kazetariarekin futbolaz

hitz egin dut, Beñat Zarrabeitia kazetariarekin Sasoia tertulia egiten dugu eta bertan kirolarietara aritzen gara: lehenengoan Odei Martin eta Mikel Gurrutxaga futbolarietara eta bigarrenan Pello Bilbaorekin eta Gari Bravorekin txirrindularitzaz. Elkarriketarak ere egin ditut: Ander Izquierdo Anaitasunako jokalaritari eta Leti Canales surfariari egin dizkiet.

9 Etorkizunerako zein bideo aurreikusten dituzu?

Orain arte emakume gutxi sartu ditut. Futbolaren buelta posible horren inguruan bideo bat egongo da, baita Osasunaren fitxaketaren inguruko analisi pare bat ere. Sasoia tertulietara jarraituko dugu. Elkarriketen sailean, bat Irene Paredes PSG taldeko futbolari gipuzkoarrari egitea pentsatu dut. Gehien gustatuko litzaidakeena, partida bat nola prestatzen dudan erakusteko bideo bat egitea da.

10 Zer moduzko harrera izan du kanalak?

Gustatuko litzaidake jende gehiagok ikustea. Bideo batzuekin harrituta gelditu naiz izan duten harrerarekin eta beste batzuekin guztiz kontrakoa. Aztertu behar dut zergatik izan den. Ea aurrera noan heinean jende gehiago etortzen den kanalera. Baina uste dut nahiko ondo egitea lortu dudala hiru aste hauek.

11 Youtubek hizkuntza propioa du, erabiltzen al duzu?

Informalagoa da. Orain esatari edo profesional maila horretan nago, baina askatzeko prozesuan nago. Umore gehiago sartzeko asmoa dut.

ESKOLA AGENDAK ETA IRAKASLE KOADERNOAK prest!

Eskatu zurea

618 640 056 • gk@gkomunikazioa.eus • Foru plaza, 23-1. Altasu

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA